



ARGIA

**Dom
Campistron**

Marrazkilaria

“*Parisen
bisexualitatea
errazago
bizi nuen, han
euskalduna
izatea zen zaila”*

12-16. orriak



**Eurokopa Bilbon?
Negozioa,
ororen gainetik**

10 | FUTBOLA



**“Atzerritar Legea da
gure prekarietatearen
konplize nagusia”**

21 | MARIA JUNCAY



**1936ko Gerrako
argazki ezezagunak
argitara**

30 | SIGFRIDO KOCH

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN
- UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | BALEREN BAKAIKOA
- 18 | KATIXA DOLHARE
- 19 | LAURE PENAGOS
- 19 | LEIRE NARBAIZA
- 20 | AHOZTAR ZELAIETA

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:
- PAULA BONET
- 54 | BERANDUEGI



26 | EUROKOPA BILBON?

Bilbon Eurokopa jokatzeko eta etxeko talde moduan Espainiako selekzioa aritzea dute amets EAeko erakundeek. Baina pandemiak kolokan jarri du hautagaitza eta zelai erdira ekarri ditu negozio ereduari buruzko galderak eta osasun neurrien kontraesanak, Mikel Elizagirrek azaldu duenez.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Burutu entsegu nuklearrak nekez gordeko ditu iraganeko ahanzturan Frantziak

Jenofa Berhokoirigoin

12 | DOM CAMPISTRON

"LGTBQ+ nortasunak marrazten ditut, jendeak gero nahi edo ahal duena ikusten du"

Miren Artetxe

21 | MARIA JUNCAY

"Emakume migratu arrazializatuok gorputzekin ari gara sustengatzen publikoa beharko lukeen zaintza-sistema"

Igone Mariezkurrena

30 | HISTORIA | 36KO GERRAKO ARGAZKIAK

Koch, kearen atzeko itzala

Urko Apaolaza

34 | EUSKARA | EHE

"Sentsazioa da instituzio batzuek euskalgintzaren isiltasuna erosi nahi dutela"

Onintza Irureta

38 | EKONOMIA

Zaintzen euskal sistema publiko bat

Urko Apaolaza

44 | KULTURA | AMSIA

"Makinen mugak bilatu nahi ditut"

Kepa Matxain

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Elizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia, Eneko Arzuaga

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefona

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaitza taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Garapenaren izenean

Orain 25 urte motozerra batzuen gaueko txinpartek gure herriko historia modernoaren ekintza gogoangarrienetako osatu zuten Itoitzen. Arrakastatsua, ikusgarria eta justua izan zelako ekintza. Gauza asko aldatu da mende laurden honetan, baina natura porlanaz estaltzeko demak bere horretan darrai. Baztango Lekarozen 300 bat lagun bizi dira, inguru ederrean. Eta aurreko eta oraingo Nafarroako gobernuek Aroztegiako jauregia lau izarreko Palacio de Arozteguía Baztan Curio Collection by Hilton hotel bilakatu nahi dute, inguruan 226 etxebizitzako urbanizazioa, golf zelaia, fitness eta "spa-weelInnes" zonaldearekin batera. Garapenaren izenean. Zorionez, lehen bezalatsu, orain ere halako makroproiektuei aurre egiteko gorputza jartzeko prest dagoen jendea ez da falta.

 **ARKAITZ / EKINKLIK ARGAZKILARIAK**
 **AXIER LOPEZ**





AROZTEGIA
GELDITU !

Herritarren
HITZA
errespetatu

AROZTEGIA
GELDITU !

TEGIA
!!

AROZTEGIA
GELDITU !

ARO
G

Herritarren
HITZA
errespetatu



**BASERRI ETA HERRI
TXIKIETAKO BIZILAGUNAK
KEXU DIRA: MENDIRA IHES
EGITEKO KALETAR GERO
ETA GEHIAGOREN JOERAK
EKARRI DU INGURUA AUTOZ
BETETZEA, JENDEA ETXE
ATARIRAINO BARNERATZEA,
ANIMALIAK AZTORATZEA,
ZABORRA PILATZEA...**

Argia.eus



**30 ETXETAKO KONTZEJUTAN
200 AUTO ZENBATU DITUGU.
GUNE HAUETAZ GOZATZERA
GERTURATU BEHARKO
GINATEKE SEN ONA ETA
ERRESPECTUA ERABILIZ,
KONTZIENTE IZANIK HERRI
HAUETAN JENDEAK BIZI ETA
LAN EGITEN DUELA**

Gasteizko Kontzeju Elkarte
GASTEIZ HOY



**MENDIAN PASEATZERA
ATERATAKO ZAKURREK
ARDIAK IZUTU DIZKIDATE.
NAZKA-NAZKA EGINDA
GAUDE, EZ DITUZTE KARTELAK
ERRESPECTATZEN ETA ESKATZEN
DUGUNA DA JABEEK ZAKURRAK
PIXKA BAT KONTROLATU
DITZATELA**

Abel seguroa, artzaina
EUSKADI IRRATIA



**EZ LARRITU: HIRIETAN
ERE, EZIN DAITEKE
EGUNEZ APARKATU HERRI
TXIKIETAKOOK HARA
GOAZELAKO, ETA EUREN
BIZILEKUA BETETZEN
DIEGULAKO. BESTE GAUZA BAT
DA BARRABASKERIAK EGITEA,
LEKU EZ EGOKIETAN SARTZEA
ETA ABAR: HORRELA, EZ**

Felix Mugurutzza

Armentia II putzuan gasa ustiatzea baztertu du Jaurlaritzak

IXONE ARANA

Espainiako Kongresuan Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren lege proiektua onartu berri da. Lege proiektuaren helburuetako bat gasaren ustiapena etetea izanik, ez luke zentzurik izango Armentia II-ko gas ustiaketaekin hasteak, EAJren esanetan.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak ohar bidez jakinarazi du Subilla Gasteizko Armentia II putzuan gasa ustiatzeari uko egin diola. Espainiako Kongresuan EAJ eta PSOEren botoekin onartu zen Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren lege proiektua.

Jaurlaritzak Armentia II putzuan gasa ustiatzearen aldeko jarrera agertu izan du, baita Gasteizko Udalak eta Arabako Foru Aldundiak berau baztertu ostean ere, baina lege proiektuaren onarpenaren ondoren aitortu du ez duela zentzurik. Lege berriaren ondoren hidrokarburoak ustiatzeko ez da baimen gehiagorik emango. Gasa ustiatzeko proiektua 2011n sortu zela gogorarazi du Jaurlaritzak eta proiektuaren aldeko ingurumen baimena badagoela. Lege berriak esplorazioa baimentzen du, baina ez gasaren ustiaketa, ondorioz, azken hori baztertzea erabaki dute.

BERRI "POZGARRIA"

EH Bildu eta Elkarrekin Podemosek albiste "pozgarria" dela esan dute. Mikel Otero EH Bilduko bozeramaileak denbora askoan itxarondako erabakia izan dela aitortu du: "Azkenean onartu dute aspaldian esaten geniona. Hau da, ez duela zentzurik gas putzurik egiteak, esplotaziorik egitea ezinezkoa izango bada".



HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Beste Espainia bat



ARITZ GALARRAGA

noiz inon aitortu dudala uste dut, baina Santiago Alba Ricok beti esaten dizkit gauzatxoak. Ados egon zein ez, eskertzen diot nagoen lekutik harago eramateko ahalegina. Azkena publikatu du liburu bat, *España* –zeina etxetik kanpo irakurtzeak lotsa pixka bat eman didan, hain da deigarria azal gorri-horika-. Eta, gaiak hunkitzen bainau, eskergarria egin zait Espainia den zera hori modu konplexu batean pentsatzeko saiakera. Gaiak hunkitzen bainau; ezen, hegoaldekook, zer egingo zaio, frantses izan gintzekoen adibidez, baina gaizki konkistatu gintuzten.

Kontu asko aletzen dira bertan; ideia batek zeharkatzen du liburu osoa: Espainiaz daukagun irudia Espainiaren irudi posibleen arteko bat dela, liburuetan, baina batez ere jendearen kontzientzietan txertatuta geratu den irudi ofizial hori. Adibide bat litzateke Birkonkista izenarekin ezagutzen den moriskoen jazarpena, zeina, suhertasun katoliko-inperiala alde batera uzten bada, kasta arteko gerra zibil bat izan zen egiazki; alegia, birkonkista gisa saldu diguten hori gehiago izan zela konkista bat, zortzi mendez “espainiar” izan ziren “arabiarren” kanporatzea ekarri zuena. Eta kanporatzea gauzatu zuten katolikoek, noski, eta katolikoak ziren denak, gaztelarrak, bai, baina baita valentziar, aragoiar, galiziar, katalanak ere, zer esanik ez nafarrak. Azkenean, uste duguna baino berdinagoak baikara batzuek eta besteak: “Katalanak eta euskaldunak Espainiatik independizatu balira (...) espainiar izateari utziko liokete termino politiko-juridikoetan, baina mendeak beharko lituzkete elkargune kultural guztiak desegiteko”.

Nik, ez bereziki espainiar, ez bereziki euskaldun naizen honek –frantses nahiko nuke, baina ezin–, beste Espainia bat posible dela uste dut fermuki –beste Euskal Herri bat posible den bezala-. Are beste Espainia bat irudikatzea litzatekeela on, osasuntsu, desiragarri; espainiar direnentzat, lehenik, baina baita Espainiak derrigorrez hunkitzen dituen guztientzat ere. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



“BETI EZBERDINARI ESKATZEN ZAIO ALDATZEA ETA MOLDATZEA”

MONTSE NAVARRO, AUTISTA

Apirilaren 2 Autismoaren Nazioarteko Eguna izan zela-eta, autistak nola gizarteratu ordez, gizarteari zer eskatzen dion kontatu du Navarrok, izan ere, “beti ezberdina denari eskatzen zaio aldatzea eta moldatzea, baina beharrezkoa da jakitea zein punturaino dauden prest bi aldeak elkar errespetatzeko. Nik nire katua ulertu badezaket gosea duenean, pertsona batekin ere komunikatu zaitezke, ezgaitasunen bat badu ere. Baina pertsona hori komunikatu daitekeen moduan komunikatzeko prest egon behar duzu”. **BBC (2021/04/02)**



Euskaltel: espekulatzeko pizgarriak



JUAN MARI ARREGI

MasMovilek Euskaltel kontrolatzeko operazioa iragarri izanak erreakzio ekonomiko, sozial eta politiko ugari eragin du. Eusko Jaur-laritzarentzat eta EAJrentzat operazio "ona" izan da. Merkataritza Ganberako arduradunentzat ez hainbeste. EAEko legebiltzarreko oposizioko alderdi nagusiarentzat, EH Bildurentzat, "espoliazioa" da, eta euskal gizarteko sektore askorentzat "iruzurra". Zutabe hau sinatzen duenarentzat, biak izan dira operazioa hau: espoliazioa eta iruzurra. Euskaltel sortzeko erabili zen diru publikoa, orain funts putreen zerbitzura jarriko da. Are larriagoa da Eusko Jaur-laritzako arduradunak gezurretan ibili izana: Euskaltelek lurraldean errotuta jarraitzea bermatuko zutela agindu baitzuten.

Hala ere, beste gai bat azpimarratu nahi dugu hemen: Euskalteleko zuzendariak 26 milioi euroko pizgarria jasoko dute. Bi ikasgai. Lehena, zuzendariak bultzada eman zaie Euskaltelen etorkizunarekin espekulatzeko. Honenbestez, MasMovil elikatzen duten funts putreen kontrolpean jarri dute. Bigarrena, filosofia kapitalista muturreraino eraman da eragiketa honetan. Zuzendariak espekulatzeko pizgarriak eman dizkieten bitartean, langileek ahaztu dira. Funts putreentzat hain karamelu goxoa den enpresaren eraketan zerbait egingo zuten ba langile horiek, ala?

Argi dago: Euskaltelek eta bere arduradun politikoek kapitalismo gordin eta basak esandakoa egiten dute. Zuzendariak pizgarri handiak eman, eta gero, MasMovil taldearen bidez lanpostuak suntsitu eta enpresa deslokalizatuko dute. Une hori iristen denean, zeren eta iritsiko da, orduan ere jasoko dute milioi askoko saria. Kapitalaren legea da. ●



Arrakala ederra jakobinismoan

JENOFA BERTHOKOIRIGAIN

Bai, ederra eta historikoa izan da 2021eko apirilaren 8an Frantziako Legebiltzarrek hizkuntza gutxituen alde bozkatu izana. Legea oztopatzeko adierazpenak eta bideak errepikatu zituen gobernuak eta kontra bozkatzeko manua ere luzatu zuen, baina legearen alde egin zuen gehiengo zabalak. Arrakala Frantzia jakobinoaren paretan: hizkuntza gutxituetan bideratu murgiltze eredua Frantziako Hezkuntza Kodean sartuko da, eskola publikoetan lekuko hizkuntzetan bideratzen ahalko da hezkuntza.

Eskola izan du Frantziak herritarrek asimilatzeke erabili tresnarik eraginkorrenetarikoa. "Ez genekien hitz bat frantsesez eta errientsak frantsesa egin ahala laster ikas genezan nahi zuen. Punizioak bagenituen, aire hartzean ere euskaraz entzunez gero punituak ginen. Ez genuen euskara baizik etxean, eta frantsesa eskolan ikasi genuen, bortxaz". *Mintzoak.eus*-en entzungai den lekukotasuna dugu hori. Frantsesa ikasi eta euskara baztertu... trauma, beldur, zigor, irain eta gutxiespenengatik. Eta gauza bera bretoiera, alsaziera, okzitaniera, katalana, korsikera zein bestelako tokiko hizkera guztientzat –ahantzi gabe Frantziak kolonizaturiko lurraldetakoak–. XIX. mende erditsura arte gutxiengo ttipi batek mintzo zuen frantsesa guztion ahotara sartu digu Parisek: euskal hiztunak %20,5 gara, bretoiera mintzo du %5,5ak, okzitaniera %14ak... hizkuntza hauentzako inolako ofizialtasunik gabe. Etxeko hizkuntzan mintzatzeagatik eskolan zigortuak izan ziren haur guztientzat ere da lege hau.

Ahal zuen guztia egin du gobernuak bozketa oztopatzeko, errotik ez zuelako leku duinik –eta bizigarririk– bideratu nahi lekuko hizkuntzei. Urteetan zehar eta azken hilabeteetan areagoturiko xinaurri lanaren emaitza da bozketa: pazientzia handiz, jakobinismoak modelatu usteak gezurtatu eta gurea azaldu behin eta berri. Zeren argi gelditu dadila: alde bozkatu dutenen gehiengo zabala frantses definitzen da eta frantses elebakarra da –eta seguruenik, gisa horretako legeen kontra bozkatu ere du orain arte–. Zorionak xinaurri guztiei. Bidea luzea dugu oraindik, baina 2021eko apirilaren 8ak erakutsi digu Frantziaren pareta arrakalatzea ez dela ezinezkoa. ●



ADINGABE BAT JIPOITU DUTE UDALTZAINEK

DONOSTIA. Apirilaren 8an, Donostiako Amara Zaharreko auzoan, bizikletan ibiltzen ari zela entzungailuak jarrita joateagatik gazte bat gelditu zuten trafiko-ko agenteek. Adingabeak, NAN-ik ez zuelako, garraio txartela erakutsi zien identifikazio moduan. Poliziek ordea, udaltzainei deitu zieten eta hauek, bortizki lurrera bota eta kolpeka autoan sartu zuten, ziegara eramango zutela esanez. Hainbatek gertatutakoa grabatu eta sare sozialetan zabaldu dute, Poliziaren gehiegikeria izan dela azpimarratuz.

@PEDALKOLPEAK

GAZTEAK

%34,5

Hiru albistetik batek (%34,5) estigmaren bat ezartzen du gazteen gainean, 700 albiste aztertuta Mèdia.cat-ek ateratako ondorioen arabera. Heren horretan, gazteak honakoekin lotzen dira: %60 gertakari biolentoak, %10 gaitasun sozialen gabezia, %6,7 drogen kontsumoa (alkohola barne) eta %5,4 arduragabe gidatzea.



Lotarako pastillen kontsumoa handitu da pandemian

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Droga eta menpekotasunei buruz 2020 bukaeran egindako inkestaren emaitzak argitaratu ditu martxoaren 26an Espainiako Osasun ministerioak. Inkesta horren arabera, pandemian errezetarik gabe hartzen diren lotarako pastillen kontsumoa da igo den droga kontsumo bakarra: %1,9ak hartzen zituen pandemia aurretik eta %3,4 dira pandemian. Aldiz, alkoholaren eta tabakoaren kontsumoak jaitsi egin dira.

BATEZ ERE EMAKUMEAK

Emakumeak dira lotarako pastillak gehien hartzen dituztenak: guztira %4 hain zuzen, eta adinka aztertuta ere, adin tarte bakoitzean emakumeak dira lotarako pastilla gehien hartzen dituztenak.

ALKOHOLA ETA TABAKOA

Inkesta horretan elkarriketatuek adierazi dute alkoholaren kontsumoa jaitsi egin dutela pandemian: herritarren %62tik %57,3ra. Gazteak dira alkohol kontsumoa gehien gutxitu dutenak. Eguneroko kontsumoa egonkor mantendu da, baina mozkorraldiak dira murriztu direnak: guztira %17,2 ziren pandemia aurretik tarteka mozkortzen zirenak, %9,7 pandemian. Tabakoaren eguneroko kontsumoa ere jaitsi egin da pandemian. Guztira %32,3tik %23,4ra.



HERIOTZAK. Hainbat izen ezagunen heriotzaz informatu dugu azkenaldian. Hala nola, Julen Madariaga ETaren sortzaileetakoa, Jasone Salaberria hizkuntzalari eta irakaslea, Iñaki Aldekoa ezker abertzaleko kide historikoa, eta Arcadi Oliveres ekonomialari eta aktibista kataluniarra.



JOKOA. Apustu etxeak arautu ditu Eguesibarrek. Gaur, egun joko areto bakarra dago ibarrean, Sarrigurenen. Aurrerantzean ezinen da halako gunerik ezarri mila biztanletik beherako herrietan. Aho batez onartu du Eguesibarreko Udalak ordenantza.



IRUZURRA. Merkatuan dauden FFP2 maskaretako asko faltsuak direla dio Espainiako Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Gorenak (CSIC). Horregatik, maskarak erosteko lekuek produktu homologatuak direla ziurtatzeko egiaztagirak edukitzea garrantzitsua dela azpimarratu du.

BURUTU ENTSEGU NUKLEARRAK

NEKEZ GORDEKO DITU IRAGANEKO

AHANZTURAN FRANTZIAK

Potentzia nuklear bihurtzeko asmoz, bonba nuklearrak probatzen aritu zen Frantziako Gobernuak 1960tik 1996ra, 200 zartatze baino gehiago burutuz; non eta kolonizaturiko Aljeriako Sahara basamortuan eta Pazifikoaren erdiko Mururoa eta Fangataufa irletan. Ofizialki, baldintza meteorologikoei esker hodei atomikoek ez zuten ia kontaminaziorik ondorioztatu; baina estatuaren gezurrak alde batera utzirik, lurralde hauetako kasik guztiak ziren irradiatuak izan.

Frantziak ahanzturan nahi lituzkeen gertakizun horiei buruzko egiak azaleratu berri dituzte *Mururoa Files* ikerketa lan mamitsuak zein ACRO elkarteak.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Saharako hareak estali zizkigun gure bazterrak martxoan zehar, ezohiko paisai horixkak eraginez. Salto geografiko erraldoiak bideratzeaz gain, denboran bidaiatzeko ere balio digute urte hastapeneko haize bortitzek; baita iraganeke ahanzturan gordetako gertakizunak azaleratzeko ere.

Frantziako Jura mendigunean bizi den Pierre Barbey unibertsitariak harea lagin bat bildu eta erradioaktibitatea neurtzen eta kontrolatzen dabilen ACRO elkartearen laboratoriora eraman zuen -1986ko Txernobylo istripuaren biharamunean osatu zuten ACRO, instituzioek bideratu desinformazioaren kontra egiteko eta egia azaleratzeko (oroit gara, ofizialki Txernobylo hodei erradioaktiboa ez zela Frantziaren gainetik pasa, baldintza meteorologikoei esker mugak ez zituelako trabeskatu...)-. Laboratorioa argiki mintzo da: “Zesio-137a identifikatu dugu Saharako hareetan, erradioelementu artifizial bat da, ez duguna naturalki kausitzen haren; leherketa nuklear batean gertatu fisio nuklearraren emaitza da”.

Gure osagarriari dagokionez, laisai egon gaitezke, kilometro koadroka 80.000 becquerelio zesio-137 zabaldu zaizkigulako, hots, ezer ez arriskutsurik. Nonbait hori bazekien Barbeyk eta helburua bestelakoa zuen: “Ez dugu ohartarazi nahi izan biztanleria arriskuan dagoela, entsegu nuklearrak eginez Frantziak eta beste herri batzuk eragindakoa oroitarazi nahi izan dugu”. 1960ko otsailaren 13an,

07:04tan, Frantziako Gobernuak bere lehen entsegu nuklearra bideratzen zuen, non eta Saharan, Aljeria kolonizatuaren hegoaldean. La Gerboise Bleue izena jarri zion bonba atomikoari, 1945eko agorri-laren 6an AEBek Japoniako Hiroshimara jaurtiketakoa baino hiruzpalau aldiz indartsuagoari.

Hourras pour la France, depuis ce matin elle est plus forte et plus fière edo “Biba Frantzia! Goiz honetatik azkarrago eta harroago dugu Frantzia” mezua helarazi zion telegramez bertan zen ministroari Charles de Gaulle ordungo Frantziako presidenteak. Azken momentuan zehaztu zuten bonbaren jaurtiketa unea, “baldintza meteoroliko idealak” zirela zehazturik: haizeak errauts erradioaktiboen zabalpena mugatuko zuen eta partikula potoloenak lurreratuko omen zituen. Gunea berriz basamortua zen, Paristik ikusirik ez zen bizidunik bertan -70 kilometrotara ziren herrietakoak, tuaregak, langileria aljeriarrak, soldadu frantsesak, kazetariak zein fauna eta flora ordea ez zituen kontutan hartu-.

ALJERIAN, 17 BONBA NUKLEAR, PAZIFIKOAN BERRIZ 193

“Eztanda aitzin, frantsesek etxetik ateratzeko galdetu ziguten, etxeak erortzeaz beldur zirelako. Gero, lurrean belauniko jartzeko erran ziguten, besoa begien aitzinean jarraraziz. Lehenik argia ikusi genuen, eguzkiaren heinekoa. Ordu laurden bat geroago, zarata latz bat, eta, azkenik,

uhina zabaldu zen, sakontasunetara eramaten zaituen lurrikara baten heinekoa... Gora zihoan ke beltza, horia, marroia ikusi genuen. Ez genuen ulertzen, baina bage-nekien egun beltza zela. Negar egin genuen” kontatzen du entsegu gunean zen Mohamed Belhacen langileak. Hortik gutxira gaixotu zitzaizkion bere bi alabak.

Zerrenda luze baten lehena izan zen La Gerboise Bleue, inpaktu nuklearrak gutxietsiz Frantziako Estatuak Aljerian bideratutako hamazazpi entsegu nuklearraren lehena. Ofizialki, kutsadura heina “onartutako segurtasun-langa baino askoz txikiagoa” izan zen aldi oro. Gezurra irenstaraztea nekezago izan zitzaien, ordea, 1962ko maiatzaren lehen hartan. Beryl izeneko entsegua istripu larri bihurtu zitzaien, lurpean behar zuen leherketak Tan Afella mendia zartaturik aireratu zelako, ehunka herritar, tuareg, langile eta frantses militar zein zientifiko irradiatuz.

1967a arte iraun zuten entseguek -lehen lauak aire librean eta ondokoak lurpean burutuz-. Aljeriaren independentzia zekarren 1962ko martxoaren 18ko Eviango Akordioan sartu zuten beste bost urtez entseguak bideratzeko baimena... “Gerroztik biztanleria zesio-137aren arrasto horiekin bizi da, eremu batzuk oso kutsatuta daude oraindik, eta horrek garaiako kutsadura irudikatzeko balio digu”, dio Barbeyk, 60 urte iragan direla eta hare kutsatua esku artean duela. SESB, Erresuma Batua eta AEBen gisara, “potentzia atomiko” izan nahian, entseguekin segitu nahia



60 URTE GEROAGO, ORAINDIK ERE KUTSATURIK.

MUNDUAREN BESTE PUNTAKO EREMU KOLONIZATUETAN BONBA ATOMIKOAK ZARTARAZTEN ARITU ZEN FRANTZIAKO GOBERNUA 36 URTE LUZEZ. ALJERIAKO SAHARA BASAMORTUAN BURUTU ZITUEN ENTSEGUAK ETA 60 URTE PASA DIRELA, ORAINDIK KAUSITZEN DITUGU OSAGAI ERRADIOAKTIBOAK BERTAKO HAREAN.

lehenetsi eta Pazifikora bideratu zituen leherketak, zehazkiago, bere meneko dituen Mururoa eta Fangataufa uharteetara. Orotara, 193 bonba atomiko zapartarazi zituen 1966tik 1996ra –Hiroshimako erradiazio-heina 800 aldiz–.

EGIA, 'MURUROA FILES'-I ESKER

“Frantziak gutxietsi du saiakera nuklearrarekin Polinesia Frantsesean izandako eragin suntsitzailea” irakurri daiteke *The Guardian* komunikabidean, *Mururoa Files* izeneko ikerketari buruz plazaraturiko artikuluan.

Disclose komunikabideko kazetariak, Princeton unibertsitateko eta Interpret egiturako ikerlariak bi urtez eramandako ikerketa da *Mururoa Files*, hamarnaka elkarriketa eta Frantziako Defentsa Ministerioako dokumentu gordeak oinarritzat dituztela. “Polinesia ez da Prypiat –Txernobyletik hurbil den herrixka baina herritarrek jasotako dosiak kasu batzuetan Fukushimaoak baino askoz

altuagoak dira”, irakurri daiteke dokumentuan. “Estatu sekretua” eta “Estatu gezurra” argira ekarrarazteko eta Pazifikokoaren erdiko 118 irletako bizidunen pozoitzea aitortzeko bidean elementu garrantzitsua da ikerketa hau. Txostenaren arabera, “100.000 herritarrek zuten erradioaktibitatea hein arriskutsuan jaso, artxipelagoko ia biztanle guztiek”. Adibidez, Tahitiko hiriburuko biztanleek jasotako erradiazio errealek CEA Frantziako Energia Atomikoaren Komisaldegiak 2006an argitaratutako azterlanean jasotakoak baino bi edo hiru aldiz handiagoak izan ziren.

Tiroidetako, eztarriko edota biriketako minbiziak, leuzemia, linfoma eta hezur eta muskuluetako gaitzak uharte guztietan zabaldurik direla azaltzen da dokumentuan –2020ko otsailean Parisen Polinesiako Gobernuari igorritako dokumentu sekretu bat eskuraturik, Frantziako Gobernuak minbizien eta entsegu nuklearren arteko lotura zu-

zena egiten duela agertzen zaigu ere–. 2017ko e-posta trukaketa konfidentzial bat lekuko, Frantziako armadak berak onartzen du 1966tik 1974ra bitarteko probetan parte hartu zuten 6.000 militarretatik 2000ri gutxienez minbizi bat agertu zitzaiela.

Mururoa Files-ei esker kalte-ordainak eskuratzeko bidea erraztea espero dute ikerlariak. Gaurko egunean bakarrik 454 pertsona zaie mina aitortu –hauetan soilik 63 direlarik bertako herritarrek– eta eskaeren %80 dira errefusatuak, inolako justifikaziorik gabe. Dena dela, Frantziako Estatuak sekulan ez die barkamenik bideratu biktimei. 2018an Nazioarteko Zigor Auzitegian salaketa jarri zuen Frantziako Estatuaren kontra Oscar Temaru bertako independentistak, gizateriaren kontrako krimena leporaturik. “Kolonialismo nuklearraren ondorioz hildako guztien izenean” erabaki zuen Justiziara jotzea, noizbait egia eta aitortza lortzeko helburuz. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

NINA MÛR
eyewear

Egurrezkoak
Eskuz landuak banan-banan
Jasangarriak
Arinak eta erresistenteak
Kalitate handiko eguzki-lenteak



Hernani 23, 20004 Donostia • 943 420 624 • zinkunegioptika.com

Dom Campistron

BEKATOROSA PLAZEREZ



LGTBQ+ NORTASUNAK MARRAZTEN DITUT, JENDEAK GERO NAHI EDO AHAL DUENA IKUSTEN DU



Bere Aldudeko estudioan hartu gaitu Campistronek. Elizaren eraikinean bertan du lantokia, horma hormaren kontra, eta meza garaian bertan balego bezala entzuten omen ditu fededunen kantuak eta apezaren hizketaldiak.

Bere murruetan, ordea, kolore paletak eta emazteen irudiak ageri dira.

Emazte biluziak. Indartsuak. Emazte lodiak. Bekatorosak.



MIREN ARTETXE SARASOLA  DANI BLANCO

Alduden hazi zara. Nola oroitzen duzu zure haurtzaroa?

Oroitzapen bikainak ditut. Herri ttipi batean handitu nintzen, ene bi ahizpekin, kanpoan, naturan, animaleko ibilbideak eginez ene aita-amekin, zinez biziki-biziki haurtzaro polita. Gainera banituen ene aitatxi eta amatxi ere, laborariak direnak. Etxalde batean bizi nintzen, aberez inguratua... Arrunt bizi sinplea, goxoa eta alaia. Gero, gure aita-amak irakasleak ziren eta biek maite zuten anitz artea eta literatura. Beraz, naturan ginen eta ber momentuan anitz kultura genuen etxean. Film onak begiratzen genituen, irakurtzen genuen... eta telebistatik aski urrun bizi ginen. Amak beti erraten zidan behar nuela irudimena landu, ene buruan pasatzen ziren irudiak behar nituela atxiki, eta

haiekin jostatu. Horrek erraztu dit bidea, gerora, marrazkilari izateko.

Eta nerabezaroan? Zer egiten du nerabe batek Alduden?

Aspertu ez. Baina, hasi nintzen ulertzen nor nintzen. Ikusten bertze interes batzuk nituela. Hiri gosea sartu zitzaidan. Baina ez nintzen honetaz aspertu. Bertze zerbaiten gogoa nuen. Maite nuen Euskal Herria eta hemengo herri kultura. Pentsatzea dena egiten ahal dugula. Bai dantza, bai antzerkia, bai kantua, bai musika. Hemen biziki erraza da dena ukitzea, dena eskura baita. Baina horrez gain, nik artearen historia ikasi nahi nuen, museoetara joan, galerietara... gustu hori banuen.

Eta bestetik, 16 urterekin ulertu nuen neskak ere maite nituela. Eta hori, ga-

raian, biziki bortitza izan zen. Pentsatzen nuen bakarra nintzela. Bakartasun sentimendu horrek eraman ninduen jende gehiago ezagutu nahi izatera. Ni bezalakoak. Bai arte munduan, eta bai sexualitatean. Horrek eraman ninduen atzerrira.

Ez zenuen heteroa ez zen inor, inguruan?

26 urte ditut, eta pentsatzen ahal da 90eko hamarkadan izanen zirela homosexualak, lasai eta publikoki bizi zirenak nire inguruan. Baina, ez. Nik 16 urterekin deskubritu nuen neskak maite nituela, neska batez maitemindu bainintzen, eta bera ere bai. Harreman bat hasi genuen biek, baina nik ez nuen sekula ikusi bikote homosexual bat musuka. Ez nuen "lesbiana" hitza entzun ere egin. Atzerri-



Dom Campistron

ALDUDE, 1994



Marrazkilaria da Dom. Aldudetik Parisera, Paristik Glasgowra eta Glasgowntik Aldudera, bere ibilbide artistikoa du bizitza ibilbide. Hainbat lan eta kolaborazio egin ondoren, apirilaren 13an aterako da *Bekatorosak* bere lehen album ilustratua. Nafarroa Behereko zazpi lagun elkarriketatu ditu, lesbianak, queerrak, gayak, eta paperera ekarri ditu haien esperimentziak, irudi diren hitzez, eta hitz diren irudiz.

tik itzuli nintzelarik ohartu nintzen jende homosexualak bazirela ene ingurumen biziki hurbilean, baina nik ez nekiela hala zirenik. Eta hori haiekin aipatzen dugularik, orain, haien zatitza da nik ez ulertu izana. Gauza da ez zela erraten eta ez zela erakusten.

Beraz, neskak maite nituen, eta bakarrik nintzen. Animaleko xantza izan dut ene familia biziki irekia baitzen. Berehala maitatu zuten ene laguna. Baina hemen haziak gira giristino gisa. Ni igande guziz joaten nintzen mezara. Beretter ere izan nintzen! Gizarte giristino, heteronormatibo eta ehiztari eta laborari giro batean bizi nintzen. Eta aste bat iraun zuen. Biziki laburra izan zen, baina zikina sentitu nintzen. Bidea biziki zaila izan zen eta denbora behar izan genuen zinez goxoki izateko, kanpoan, lasaiki, bikote ginela erakutsiz. Urteak.

Geroztik, itzuli naizenetik, harritu naiz ikusirik ezagutzen nituen jendeak armairutik atera zirela kanpoan nintzen bitartean. Feminismoa ere lehen arrunt bazterrekoa zen, eta orain airean da. Sekulako zapartatzea izan da *me too* mugimendua. Eta sare sozialak ere, beharrik hori direla. Nik hori ukan banu, Aldudetik ikusi ahal izatea erreferente horiek... Oraingo gazteriak irudi horiek ikusten ditu, eta hori animaleko irekidura da.

Marrazten nola hasi zinen?

Ez dut oroitzapenik, hasi nintzenekorik. Betidanik marraztu dut. Aitak anitz marrazten zuen etxean eta berarekin karikaturak egiten genituen. Komikia maite zuen berak. Eta nik maite nuena zen istorioak kontatzea. Gure amak istorioak irakurtzen zizkigun. Eta anitz maite nituen momentu horiek. Gure artean antzerkia ere egiten genuen gure burasoen aitzinean. Anitz idazten nuen... Marrazkia lizeo garaian jin zen. Behar bada marrazki bidez istorioak kontatzeko erraztasun gehiago nuelako. Zeren zinez, haria izan da ene botza, ene hitzak, eta ene ikuspuntua ematea.

Beraz, lizeo garaia bukatuta, arte eskola batera joatea erabaki zenuen.

Aldudetik Parisera.

Parisera joan nintzen, gogo adina belurrekin. Zinez behar nuen. Nahi nituen gauzak ikusi, lesbianen ostatueta-

ra joan... ikaragarriko gosea nuen. Nor nintzen ikertu behar nuen, ene estiloa atzeman, zer pentsatzen nuen jakin... Zinez loriatu naiz Parisen. Alta, han beste nortasun batekin borrokatu behar izan nuen. Pariseko ikuspuntutik baserritar bat nintzen. Baserritarra eta euskalduna. Beraz, ETA, bonbak, eta bestelako txisteak... Bisexualitatea errazago bizi nuen, baina, han euskalduna izatea zen zaila. Interesgarria zen.

Eta zer atzeman zenuen arte eskolan?

Egun guztia marrazten pasatzen nuen, brodatzen... Plazera zen. Eskola tradizionalan beti enoatu naiz. Ez nuen ulertzen zertarako ikasi behar nituen gauza batzuk. Denbora galtzea iruditzen zitzaidan. Lizeoan banekien artea ikasi nahi nuela. Akitua nintzen aspertzear.

Baina, bazituen alde txarrak ere. Ikaragarriko lehiakortasuna bada ikasleen artean. Eta irakaslea zure gainean da eta zuk ezin duzu deus erran. Marrazki hau ona da, hau ez. Eta zu isilik. Ni arribatu nintzen dena zakil dena bular... eta irakasleak ez zuen jasaten. Beraz ez ginen biziki ongi moldatu. Ez dut batere maite Frantziako irakasteko tradizio hori. Ni arrunt goxoki heldu nintzen Aldudetik... Eta gogorra zitzaidan. Bestalde, eskolan denak paristarrak ziren, biziki ongi jantziak... Zuk ez duzu sobera kasu ematen zure janzkerari edo zure itxurari, eta bat-batean giro hori...



Glasgown ikasi nuen plazerez lan egiten eta ez minez. Parisen bezala Euskal Herrian, pentsatzen dugu gure lana ona izan dadin sofritu egin behar dugula. Eta ez naiz diskurtso horiekin ados"

Han bi urte egin eta gero erabaki zenuen Eskoziara joatea.

Bai. Guri beti gomendatu izan digute Pariseko eskolara joatea, handik pasa izanak ateak zabalduko zizkigulako.

Eta hala da. Ez nuen arazorik izan The Glasgow School of Art-en sartzeko.

Ene ahizpa zaharrena Eskoziako arte eskola batean ikasten ari zen. Eta erraten zidan irakasleak lagunak zirela, bazela pub bat eskola barnean... Eta gainera banekien trans eta gay kultura handia bazela Eskozian. Beraz izena eman nuen.

Eskola bikaina da Glasgown. Nahi duzularik sartzeko zara, asteburuz bada ere. Kurtsoa gustatzen zaizu? Bikain. Ez zaizu gustatzen? Ez da arazorik. Ez etorri. Posible zen irakasleekin eztabaidak ukatea ere. Han ikasi nuen plazerez lan egiten eta ez minez. Parisen bezala Eus-

kal Herrian, pentsatzen dugu gure lana ona izan dadin sufritu egin behar dugula. Eta ez naiz diskurtso horiekin ados. Plazer hartu! Ez baduzu zer baitetan plazerik atzematen, gelditu. Bilatu beste pista bat, eta segi horri, berriz plazera atzeman arte.

Ikaskideak ere ez ziren paristarrak...

Ez! Eskoziarrak, ingelesak, italiarrak, leto-niarrak, alemaniarrak... *Melting Pot* biziki interesgarria zen. Han erran nuen euskalduna nintzela, eta ez zen galderarik izan. *"The Basque one"* nintzen eta kito. Sexualitatean ere biziki irekiak ginen denak. Nehork ez zion galdeginen neska bati ea ba ote zuen mutiko lagun bat. Galdera izanen zen "baduzu norbait, edo ikusten duzu norbait"? Eta lehen aldikotz ikusi eta ezagutu nituen pertsona transgeneroak ere. Elkarrizketa anitz izan nituen eta anitz ikasi nuen. Ene transfobiaz ohartu nintzen eta anitz ireki zidan burua. Zeren eta nik ez dut sekula jakin klarki zer nintzen. Ez naiz gauza finko bat. Erraten dut bisexuala naizela, errazagoa baita jendeei esplikatzeko. Baina, nik ez dut ene burua definitzen. Erran nezake queerra naizela, bai generoan eta bai sexualitatean.

Orain Euskal Herrira itzuli zara. Paristik Glasgowra eta Glasgowntik Aldudera.

Han egiten nuena han egitea kasik sobera erraza atzematen nuen. Banekien momentu batez itzuliko nintzela eta gauza bera egin

behar nuela Euskal Herrian. Eta hor interesgarri izanen zela. Animaleko pisua kendu banu bezala sentitzen naiz. Bestalde, herrimina nuen, ikaragarria. Hiria biziki interesgarri da, baina ni psikologikoki ez naiz batere hiritarra. Indar anitz galdegiten dit hiriak, nerbiosten bainaiz. Zaila zait. Bi edo hiru egunez, edo bakantzetan, bikain. Baina urte guzian zehar zaila zait. Behar dut natura, eta behar dut lasaitasuna.

Banekien hirira joateko diru gehiago beharko nuela alokairua pagatzeko, eta ezingo nuela ilustratzaile gisa lan egin. Beraz familiaren etxera itzuli nintzen, ostatu batean lana atzeman nuen... Herri batean bizi zarelarik, ezagutzen dituzu jendeak, erosten ahal dituzu tokiko barazkiak eta arroltzeak, eta bizia aski merke bilakatzen da. Horrek eman dit denbora. Hiru-lau egunez lan egin, eta hiru-lau egun enetako, marrazteko. Hirian ezingo nuke.

Lagun harremanak ere berrartu ditut. Libertimenduaren dinamikan sartu naiz, euskara berriz ikasi dut, ahantzi bainuen... Sekulako kulpabilitatea nuen euskara galtzeagatik! Urte bat eman nion ene buruari. Eta hara. Kontent naiz. Aldi berean, zaila da kontrazentzuan joatea. Behar da asumitu. Jendeak ez du beti ulertzen, zertan ari zaren ostatuan sasoiari eta marrazkiak egiten, lan finko bat xerkatu orde. Ene hautua, alta, ilustratzaile izatea da, eta horretatik bizitzea.



EUSKALDUN FEDEDUN ETA HETERO

"Zinema eta arteari esker hasi nintzen pertsona homosexualen adibideak ikusten, baina denak ziren ingelesez edo frantsesez, eta ez zen deus euskaraz. Eta iruditzen zitzaidan euskal nortasuna eta gay nortasuna ez zirela bateragarriak. Eta manera batez, paradoxikoki, pentsatzen nuen nik ni izateko behar nuela ene euskalduntasunaz urrundu, iduritzen zitzaidalako ez zela posible euskal giroan aske izatea".



Zure lanetan bada zerbait zureak direla asmarazten duena. Hori da estiloa?

Eskola ttipian ginelarik asteburutan oroitzen naiz letrak berriz egiten nituela, ene "a" nolakoa izanzen zen erabakitzeke. Eta jakin gabe, tipografia egiten nuen. Ttipititik badut ene estiloa. Anitz aldatu zait denborarekin, baina betidanik badut. Orain duela hiru urteko zerbait ikusten dudalarik, ez dut ia ene estiloa ikusten. Kanpotik bai, ikusten da enea dela, baina nigan dena aldatzen da egunero.

Behar da konfiantza hartu. Eta lan anitz egin! Marrazten baduzu egunero, marrazki batzuk maiteko dituzu eta beste batzuk ez, baina zure estiloaren bilaketak hori du. Zer maite duzun deskubritu behar duzu. Sare sozialetan jendeak segituz, zerbait berria xerkatuz beti. Begiak zabalik ukan behar dituzu. Zineman irudi bat ikusten duzunean eta ederra atzematen duzunean, entseatu oroitzen. Berdin zerbait irakurri eta irudi bat iradokitzen dizularik.

Eta ikasi behar da zure lana baloratzere. Ez sobera kritikoa izaten zure buruarekin. Zure marrazki bati so egin eta zera pentsatu: "Hori egin nuen. Egun horretan eman nuen ematen ahal nuen eta hori zen, eta hala da. Orain egiten

ahal baldin badut hobeki, hainbat hobe". Baina zure marrazkia ez zara zu. Zure marrazkia da. Ez zaitu osoki errepresentatzen.

Zure lanen ezaugarri bat da emazteak ageri direla maiz.

Bai. Anitz axola zaidan gai bat da hori. Denek dugu emaztearen irudi kanoniko bat. Nik badakit beti sartu izan naizela kode horietan. Luzea naiz, fina naiz... Eta lehen ni bezalako emazteak marrazten nituen. Ohartu naizen arte nik ez nituela horrelako emazteak maite. Ederrak atzematen nituenak, karrikan begiratzere nituenak, forma gehiagokoak ziren. Gero ohartu naiz hori ere politikoa zela. Ez zela gustu kontu soila. Eta hor hasi naiz exajeratzen, gorputz biziki gihartsuak irudikatzen, edo biziki gizenak, iletsuak... Berriki ohartu naiz arrazista nintzela. Soilik emakume zuriak marrazten nituela. Beraz, orain hasi naiz kolore guztietakoak marrazten. Eta generoari dagokionez ere, saiatzen naiz genero gabeko gorputzak proposatzen, zuk nahi duzuna ikus dezazun. Zakila eta bularrak, eta alua eta ileak.... Nahi duzuna da, eta ez da deus. Dena da. Ikusten badituzu ileak pertsona baten gainean eta pentsatzen baduzu horregatik gizon

bat dela, hori da ikusten duzuna. Nik ez, baina ez da arazo bat. Nirea beste ikuspuntu bat da. Zerbait desberdina gure ingurune bisualean. Hazi bat, jendeak bere burua galdezka dezan.

Zure bizi esperientzia, pentsamoldea, eta marrazteko gaitasunaren batura da *Bekatorosak* proiektua?

Bai. Proiektu bat garatu aitzin pentsatzen dut, "Zerk nau kakinarazten?" eta nik bizi izandako gauzak izaten dira. Eta entseatzere naiz gai horiek umorearekin aipatzere. Marrazkiak begiak erakartzen ditu, eta umoreak errazten du gai konplikatu ez mintzatzea jendea uxatu gabe.

Hastapenetik egin nahi nuen proiektu bat hemen gairako homosexualitatea aipatzeko. Parada ukateko pertsona horiekin elkarriketarako egiteko, eta haien bizia ezagutzeko. Hala, Baxenabarreko zazpi pertsona lesbiana, gay eta bisexualekin bildu nintzen. Zaharrena 50 bat urtekoa da, eta gazteena 24 urtekoa. Elkarriketarako egin, idatzi, berridatzi, zatitu, zatiak hautatu eta zatiak ilustratu ditut, album ilustratu bat osatuz. Forma aski berezia du. Testu guztiak eskuz idatziak dira, testua eta irudia nahasten dira... Urte bat hartu dut dena egiteko. Eta egin dut. Plazerez. ●

ELHUYAR SOLASALDIAK

APIRILAREN 14tik - MAIATZAREN 12ra / 18:30ean
SUTEGIN (Usurbil) eta ONLINE (usurbilkultura.eus eta zientzia.eus)
 Sutegirako beharrezkoa da izena ematea: usurbilkultura.eus



elhuyar
 ezagutzeko aldatzea



Apirilak 14, asteazkena
COVID-19aren korapiloak deslotzen
 Ana Galarraga Aiestaran

Apirilak 21, asteazkena
COVID-19aren osteko gizartea: zaintzaren demokratizazioa
 Maite Santxo Castiello eta Miren Aranguren Etxarte

Apirilak 28, asteazkena
Pentsamendu kritikoa garatzen
 Agustin Arrieta Urtizberea

Maiatzak 5, asteazkena
Ekonomiaren berreraikuntza ekologikoaren alde
 Mirene Begiristain Zubillaga eta Arturo Elozegi Iurtia

Maiatzak 12, asteazkena
Adimen artifiziala hizkuntzan: nola eman ikuspegi soziala
 Xabier Arregi Iparragirre eta Xabier Saralegi Urizar



Krutwig: 1921-2021



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Aurten betetzen da Federico Krutwig Sagredoren jaiotzaren men-deurrena eta bere obra erraldoiaz lerro xume batzuk idaztera noa, gure gazteriak jakin ditzan eginiko hainbat ekarpen. Izan ere, bere luma oso oparoa izan zen eta ekarpen asko egin zizkion euskarari, politikagintzari, literaturari, ekonomiari... Erromako erbestean bera ezagutzeko parada izan genuen, 1970ean, eta aukera berarekin intelektualki aberasteko. Gerora ere berarekin Bruselan eta Euskal Herrian egoteko zortea izan nuen eta beti, bere buruan, Euskal Herria.

Federico euskaldun berria zen eta 26 urterekin, Azkueren eskutik, euskaltzain oso izendatu zuten. Euskaltzaindian ere ez zen ezkutuan ibili: hasteko, bertako bilerak euskaraz egitea lortu zuen; bestetik, euskara batuaren alde egin zuen. Beraren ustetan euskara batuaren oinarriak lapurtera klasikoan zeuden, tradizioko euskara kultuan, jadanik Leizarragak eta Axularrek idatzi zuten euskarari. Aranismoak erabiltzen zuen euskara garbiaren aurka zegoen eta greziera klasikotik zetozen termino kultuak maileguan hartu behar zituen, hizkuntza aurreratu eta aberatsa erdietsi nahi bazen. Berak euskara hori erabiltzen zuen: lapurtera klasikoa. Horrela, Euskaltzaindiako ekitaldi batean Eliza Katolikoa gogor kritikatu zuen euskararen aurkako politika koloniala zeramalako. Eta ondorioz ihes egin behar izan zuen Iparral-

Marxek aurreikusten
zuen langileriaren
iraultzak zentzurik ez
du izango, iraultza
burutzeko proletalgoak
gaitasunik ez baitu, bai
ordea jakintza gorena
duen eliteak

dera, non Likiniano, Kasilda eta beste hainbat iheslarirekin elkartuko zen.

Hizkuntzak ikasteko erraztasuna zuen eta zioenez hamabost hizkuntza menperatzen zituen, persiar zaharra ahaztu ondoren. Prentsa agentzietan oso erraz aurkitzen zuen itzultze lana. Mao-ren aipuak ere itzuli zituen.

Krutwigek euskal abertzaletasuna berritze aldera lan eskerga burutu zuen eta bere ekarpen nagusiak hiru liburutan jasoko nituzke, nahiz bere obra politikoa arras oparoagoa izan: *Vasconia* (1963), *La Cuestión Vasca* (1965) eta *Computer Shock. Vasconia. 2001* (1984).

Vasconia-n aurkituko dugu Euskal Herri Handiaren historia, zein gaur egungo Akitania Berriak, Nafarroak eta EAEk osatzen duten euro-erregiora hurbiltzen den. Halaber, euskal nazioaren oinarri nagusia ez da arraza, aranismoak zioen

bezala, hizkuntza baizik, eta bigarren maila batean kultura eta mentalitatea, erlijioa, arraza eta ezaugarri ekonomiko-sozialak. Naziogintza prozesu dinamikoa da (Marx-Kropotkin) eta horrela lortuko du estatu bilakatzea, marxistek (Lenin) zioten bezala erabakitzeke eskubidea eskuratu ostean (*La Cuestión Vasca*). Prozesu politiko hori baketsua izango da, alabaina diktadurak edo demokrazia ezak galarazten badio Euskal Herriari independentea izatea, zapaltzaileen estatuaren aurka borroka armatuta jauzi egitea zilegi litzateke. ETaren V. Biltzarrean parte hartuko du eta onartuko dira bere hainbat teoria, Biltzar Ttipiko kide izatera heldu zelarik.

Erbestetik itzulita, Krutwigek *Computer Shock* idatziko du non, igarle moduan, konputagailuen iraultzak dakarren aurreikusiko duen eta Euskal Herriak zer egin behar duen aurrerabidearen gurpila ez galtzeko. Etorkizunean makinek pertsonen adimena eskuratuko dute eta makina batzuek, robotek, proletalga ordezkatu. Ondorioz, Marxek aurreikusten zuen langileriaren iraultzak zentzurik ez du izango, iraultza burutzeko proletalgoak gaitasunik ez baitu, bai ordea jakintza gorena duen eliteak. Eta horretarako euskal elite sortzailea eratu eta elikatu behar da: Sophopolisen, jakitunen hirian, euskal elitearen bilgunean, non asmakizun gorenak emango diren.

Krutwig, ezagutu behar den euskal igarlea da. ●

Zer nahi dugun



ANTTON OLARIAGA



KATIXA DOLHARE -ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

2021eko urtarrilean, Barbara Stiegler filosofoak eskuorri bat argitaratu du Gallimard argitaletxean, *Tracts* sailean: *De la démocratie en pandémie*, edo *Demokraziaz izurrite garaian*. Bordeleko unibertsitatean irakasle da Barbara Stiegler, eta jakintza alor ezberdinetako jendearekin lan egiten du. Eskuorri hori, osasun publikoan, ospitale praktikan, hizkuntzalaritzan, eskubide publikoan, filosofia politikoan, zientzietako filosofian eta historia politikoan adituak diren lankideekin idatzi du.

Liburutto horren tesia da COVID-19a ez dela pandemia, baizik eta “sindemia”, erran nahi baitu ezberdintasun sozialek eta krisi ekologikoak eragin eritasuna. Horrela ikusiz, COVID-19a ez da izugarria berez: izugarria da argiki erakusten digulako zein heinetaraino gaizki doazen gizakia eta gizartea, bai osasun fisikoaren aldetik, bai osasun psikologoaren aldetik, bai sanotasun intelektualaren aldetik.

Alabaina, COVID-19ak agerian uzten du zein hedatuak diren eritasun kronikoak (hipertentsioa, obesitatea, diabetesa, gaitz kardiobaskularrak, hatsari lotutakoak, minbizia); norbanakoak zein ahalduak gauden ere moralki, lan bal-

dintzek errausten gaituztelako; zein heineko prekaritate mental, afektibo eta materialean dauden jendarteko pertsona gehienak.

Gehiago dena, COVID-19 sindemiak denen bistara erakustera eman du gobernatzaileen jakitate eskasa, ausarki moldatzeko eta egokitzeko gaitasun eskasa, asmamen falta, jendarteari begira duten erdeinua, hots, hautatzen duten postura autoritarioak ezin ezkuta ditzakeen makurrak.

Bizkitartean, ez da oldar uhin handirik hautematen bazterretan: COVID-19aren kontrako gerlan sartua da gizartea, agintarien manupean, covid-a pandemia balitz bezala. Berriki, Emmanuel Macron-ek inposatu digu laugarren hetsaldia, galdeginez tele-hezkuntzara jo dezagun gure haurrendako, eta guhaur telelanean ari gaitezen; bestela erranda, munduko sistema ekonomikoa etenik gabe aitzinaraz dezagun, hiztegi eta praktika berrietuekin. COVID-19 sindemia gisa hartuz, alderantziz, ohar gaitzek izurriari kontra egiteko modu iraunkorra sistema ekonomiko eta politikoz aldatzea litzatekeela, hainbat elkarte eta erakundek aldarrikatu bezala.

Baina aldaketa hori, zenbatek nahi-ko luke, zinez? Goxo da arduradunei es-

kaintzea erabakitzeke erantzukizuna, eta manukor gelditzea, klima aldaketa, zuzentasun soziala, oinarritzko eskubideen defentsa eta horrelako xedeen alde egiazki ekin gabe. Begira nolako erronkak dauzkagun: gure antolaketa ekonomiko osoa kanbiatu beharko genuke, hiritartasun baloreak birdefinitu, gure jakitateak dudak ezarri eta ikasketetara berrituz... eta ezin erran horrelako indar kolektiboak salbamena lekarkigukeela.

Hauxe dateke galdera, beraz: erraztasunez edo etsipenez, erregimen autoritario bat desiratzen ote dugu? Ala demokrazian bizi nahi dugu, egiazko demokrazian, diot, horrek eskatzen duen funtsezko eztabaida giroarekin, eta gizarte maila guzietan? Galdera egokiak egiteko gaitasuna, benetako jakitatea eta norabideak finkatzea elkarerraginean baizik ez daitezke eraiki, dio Barbara Stieglerrek, ez autoritarismo hutsal eta itsuan.

Laugarren etxe zokoratze hau gurutze bide bukaezin bateko urrats berria irudituko zaio frankori, nola ez. Ea, tartean, laguntzen gaituen, bakoitza, guretzat eta gizartearentzat *zer nahi dugun* argiago izaten, ideologia eta praktika autoritario guzietatik at. ●



**LAURA PENAGOS
RODRÍGUEZ**
ANTZEZLEA

Zauria

Duela egun batzuk galdetu zidaten ea hemen noizbait sentitu naizen baztertuta nire azalaren koloreagatik. Ezetz erantzun nien berehala. Ez dakit nondik erantzun nuen.

Egunak pasa eta gero etorri zitzaidan hausnarketa burura. Nor naiz ni denboraren baitan? Nor naiz ni denboratik kanpo begiratzen dudanean? Emakume beltza naiz? Emakume indigena naiz? Emakume zuria naiz? Emakume mestizoa naiz? Neure buruari galdetzen diot nor naizen, eta batzuetan ez dakit. Garraztsua da hau jakitea? Zertarako?

Txikitan, ispilu aurrean galdetzen nion aitari –“Aita, zergatik ez naiz zuria? Zu gizon zuria zara, eta baita ahizpak ere”–. Ahizpak bezalakoa izan nahi nuen; are gehiago, Amerikako Estatu Batuetan bizi den osabak ekarri zidan Barbie panpina izan nahi nuen.

Aitak bi lagun zituen: batek “la india Vivis” deitzen zidan, Viviana baita nire bigarren izena; eta besteak, “Chorrito e jumo”. Kea esan nahi zuen bigarren horrek.

Ez nuen beltza izan nahi, ez nuen indigena izan nahi. Zergatik ez, Laura? Kolonialismoak gizaki zuriaren botere hegemonikoa oso ongi irakatsi zigun. Feminismo kolonialaren jardunaldiak egin zituzten Durangon. Emakume beltz haiek ikusi nituenean, Audre Lordek

esaten zuen bezala “gure ahizpak”, lotsa handia sentitu nuela onartu behar dut. Dena zentzugabea zela sentitu nuen.

Nork sufritu du gehiago? Noiz arte bizi beharko dugu munduan biktima gisa? Zergatik ezarri nahi diegu gure egia besteei? Gizonezkoen munduari egozten zaion oldarkortasun hori sentitu nuen, heldutasun ezarekin nahasia. Infantilizatua sentitu nintzen, duintasunik gabe sentitu nintzen, ez nintzen ordezkatuta sentitu. Gloria Azalduak idatzi zuen bezala, “bandoen arteko sutan harapatuta, bost arrazak zure bizkarrean daramatzazunean, zein aldetara jo jakin gabe”. Nire bihotzean tristura bat geratu zen. Mendeak pasatu dira, baina zauri hau zabaltzen ari da eta ustel irauten du.

Kostatu zait zauri hau aurrez aurre ikustea, ez nuen nire sentitzen, ezkutatatu egiten nuen errurik eta lotsarik ez sentitzeko. Zauri hau entzun, besarkatu eta zaindu dut, eta orain ez dakit non dagoen. Joan da? Ez dut sentitzen, baina badakit ahizpa batzuek hor dutela. Zilegi da, eta, agian, beharrezkoa.

Nola egin aurre begirada zuriari? Nola egin aurre emakume beltz eta “arrazializatu” gisa ditugun aurreiritziei? Nola egin aurre geure buruari? Zer gertatuko litzateke gure azalarekin identifikatzeari utziko bagenio? Zer, esan ziguten guztia-rekin identifikatzeari utziz gero? ●



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Ikurrina

Aberri Eguneke gauean, ohera joan aurretik zintzilikatu nuen leihoan ikurrina. Literal, arropa eskegitzeko pintzekin lotu nuelako arropa eskeitzeko sokan.

Berri-berria zen, estreinatu egin nuelako, iaz itxialdi ostean erosi banuen ere. 2020ko Pazko egunean zerbait jarri nahi izan nuen bentanan, baina ez neukan ezer. Hauxe da, hortaz, nirea den lehenengo ikurrina.

Gainera, independizatu nintzenetik, estreinakoz jarri dut aurten gure bandera bizi naizen etxean. Ez naiz oso ikurrinzalea izan, beharbada bazegoelako sinbolo horretan zeozer gogoko ez nue-

na. Koloreak gustuko ditut, diseinua ez hainbeste. Beste bandera batzuen aldean alaia da. Itxurak ez zidan ezinegona eragiten. Asperdura infinituak akaso? Klixe etenbakoa bihurtuta zegoelako? Ezin azaldu zergatia!

Katalanek *procés*-ean zabaldu zizkidaten begiak: bandera bat –edo batzuk– behar genuen, eta bageneukan. Bestalde, ezin ahaztu zenbatek defendatu zuten debekatuta egon zenean; gure aitak, besteak beste.

Aitxa akorduan, eta bere izenean, ibili zen dilindan bigurutzeduna etxeko leihoan. Iragana gogoan, etorkizuna iradokitzeke. ●

Forbestar Sabin



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

2017an Sabino Arrieta jeltzalea Forbes aldizkariko Euskadiko aberatsen zerrendaren bigarren postuan zela irakurri genuen. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuordea izandakoa da, 1984tik 1989ra. Sabinok Miamin 17 milioi dolar inbertitu ditu jada Amerikako Estatu Batuetako prentsaren arabera eta beste 40 milioi euro Düsseldorf, Frankfurt, Hamburg eta München hirietan, Alemaniako prentsaren arabera.

2020an Miamin oihartzun handiko eraikin baten jabe bihurtu da, 12 milioi dolar ordaindu ondoren. Tutik ere ez da aipatu euskal prentsari. 2017an Espainiako prentsaren bitartez jakin genuen beste eraikin garrantzitsu bat erosi zuela Miamin, 5,2 milioi dolar ordaindu ondoren. Eraikin honetatik hurbil dago Atlantis eraikina, *Miami Vice* telesailaren ikonoa. Telesail honetan euskal jatorria zuen polizia bat agertzen zen.

2017an Sabinoren berri izan genuen berriz, Bilbon *prime* eraikin bat 6 milioi eurotan saldu ondoren. Baina isilpean 2016an Düsseldorf hirian eraikin baten jabe egin zen 6 milioi eurotako operazio

Sabinok EAJrekin loturak mantendu ditu azken urteotan. 2011 urtean Naturgitza Fundazioaren presidente bilakatu zen. Fundazio honek De Miguel auziarekin loturak zituen

batean, eta 2013an Frankfurten 7 milioi eurotako beste eraikin bat erosi zuen.

Sabinok EAJrekin loturak mantendu ditu azken urteotan. 2011 urtean Naturgitza Fundazioaren presidente bilakatu zen. Fundazio honek De Miguel auziarekin loturak zituen, eta bere patronatuan Juan Mari Atutxa Segurtasun sailburu ohia ageri da. 2013an Agirre Lehendakaria Fundazioaren sorkuntzan parte hartu zuen Sabinok.

Sabinok Eusko Jaurlaritza utzi eta enpresari bezala bere ibilbidea hasi zuen, Laurak SA eta Vinilika SA enpresen jabe bihurtuz. Enpresa horiek Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak jaso zituzten. 3-R planaren dirulaguntzez ari gara, Industria sailburuak, Jon Azuak, zuzendutako plana. Urte batzuk geroago Kontu Auzitegiak dirulaguntza horien irregularitasunak agerian utzi zituen. 3-R planak Joseba Grajales aberatsaren enpresen alde ere egin zuen. Gaur egun Grajales eta Azua sozioak dira Keralty izeneko osasun arloko enpresa batean. Jon Darpón Osasun sailburu ohia, Keralty lan egiten hasi zen hain zuzen ere, dimisioa aurkeztu ondoren.

Sabino Sidenorreko presidente izandakoa da, 1995 urtean 13 milioi euro ordaindu ondoren. Hamar urte beranduago enpresa Sidenor Gerdau talde brasildarrari saldu eta 445 milioi euro irabazi zituen Sabinok. Sidenorreko presidente zela, 2003an, Cilindros Bolueta enpresaren lursailak erosi zituen 60.000 eurogatik, 20 milioi irabaziz *pelotazo* horretan. ●



943 64 17 10
www.endanea.com

Baratzeari etxean

Barazkiak, landare usaintsuak
edo jangarriak etxean
ekoiztea oso erraza da.
Gogoz? Zatoz!

Online denda



Emakume Migratu Feministak-Sociosanitarias (EMFS) elkarteak lehenbiziko urteurrena bete du. Mendekotasuna duten pertsonak etxean zaintzen dituzten langileak batzen ditu eta, orain arte Euskal Autonomia Erkidegoan mugitu diren arren, bidean aurrera egin ahala eragin-esparrua zabaltzeko gogoia dute. Helburua: arreta soziosanitaria profesionalizatzea, etxeko enplegutik bereiztea eta lan-baldintza duinak bermatuko dituen berezko hitzarmen kolektiboa lortzea. Maria Juncay (Loja, Ekuador, 1970) duela 22 urte iritsi zen Euskal Herrira, eta alzheimerre duten adineko gaixoak zaintzen dihardu orduz geroztik. EMFS elkarteko bozeramaileetako bat da, eta hamabi hilabete hauen gaineko balorazioa du esku artean.

 IGONE MARIEZKURRENA
 IRANTZU PASTOR

“Emakume migratu eta arrazializatuok gure gorputzekin ari gara sustengatzen publikoa beharko lukeen zaintza-sistema”

**MARIA
JUNCAY**



laz, data hauen bueltan, hamar bat emakumek hasi zenuten saretze-lana. Orain ehundik gora langile soziosanitario ari zarete zeuen eskubideak aldarrikatzen.

Hein handi batean, COVID-19ari zor diogu gure borrokaren hasiera eta susperetzea. Ezkutuko ekonomian aritzeak eta aldi baterakotasunak elkarrengandik isolatuta eduki gaituzte, baina orain arte gure baitan murtxikatzen genituen kezak partekatzeak abagunea suertatu da, eta probestera goaz!

Zein izan da pizgarria?

Ziurrenik, itxialdia. 2020ko martxoaren 29ko Errege Lege Dekretuak ezinbesteko jardueren zerrendan jaso zituen adineko nahiz adin txikikoen zaintza baita desgaitasun edota menpekotasun mailaren bat duten pertsonen zaintza ere. Ez, ordea, etxeetan garbiketetan lanak soilik egiten dituztenen jarduna. Azken hauentzat, gainera, ezohiko subsidioa onartu zuen Madrilgo Gobernuak. Ustekabea, Alarma Egoerak bideratuta, guk aspaldidanik aldarrikatzen genuen diferentziazioa azaleratu zen: arreta soziosanitarioa eta etxeko lanak ez dira gauza bera. Hori agerian geratu izana gure sektorearen errekonozimendu sozial, legal eta profesionalerantzko lehen-lehen pausoa izan zen. Hortik abiatuta, menpekotasuna duten pertsonen zaintzak etxeko lanen zakutik ateratzea lortu behar dugu, berezko lan-hitzarmen bat. Langile kualifikatuak gara, balora gaitzaten nahi dugu.

‘Sociosanitarias’, baina, elkartearen azken izena da. Horren aurretik, Emakume Migratu Feministak zarete.

Zoritxarrez, oraindik ez daukagu baliabide estatistikorik, gainera instituzio publikoei dagokie hori, baina gure esperientziatik eta ezagutzatik baieztatu dezakegu EAEn menpekotasuna duten pertsonak zaintzen dituzten gehien-gehienak emakume migratuak garela, eta %100ek etxeko zereginak ere beren gain hartu behar izaten dituztela enplegu berean; kontratatuta nahiz modu irregularrean jardunda ere. Horrek semiesklabutza edota esklabutza beteko egoerak ahalbidetzen ditu, batez ere barneko langile modura aritzen direnen kasuan. Feministatzat dugu gure burua, jakina, eta EMFS eratu aurretik ahalduz espazio ezberdinetan ibiliak gara; Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxan, Torre de Babel programan, Grupo de Acción Política de

Trabajadoras de Hogar (GAP) taldeko lagunekin ere badugu harremana noski... eta horrexegatik uste dugu bertako emakume zurien feminismoek eta guk ez dugula berdintasunaren defentsa era berean pentsatzen.

Zergatik ez?

Bizitzak eta, horrekin batera, zaintzak erdigunera ekartzeko aldarria askoren ahotan bolo-bolo dabil azken urteotan, bereziki aurreko bi M8etan. Politikari zenbaiten diskurtso hutsaletan, eta kaleko jendearen artean ere bai. Historikoki sistema patriarkalarentzat doakoak izan diren lanak ikusarazteko borrokan ari da mugimendu feminista; erreproduzioarekin, etxearekin eta zaintzarekin loturiko lanak halakotzat, lan gisa, balioetsi ditzan sistemak. Asmo horrekin bat gatoz, baina ez da nahikoa. Begira,

“Emakume zurien feminismoek eta guk ez dugu berdintasunaren defentsa berdin pentsatzen”

iazko uztaillean etxeko langileentzako ezohiko subsidioa eskuratzeko epea itxi zutenean, 52.000 eskaera besterik ez zeuden erregistratuta Espainiako Estatuan. Esan bezala, tamalez datuak falta zaizkigu, baina jakin badakigu milaka emakume gehiagok dihardutela horretan. Kontraturik gabe egiten dutenak, bertakoak ere bai, horregatik geratu dira babesgabe. Baina subsidioa eskatu ez duten beste asko emakume migratuak dira. Azken hauek garbiketaz, otorduak prestatzeaz, arropak plantxatzeaz ez ezik, menpekotasuna duen pertsona baten zaintzaz ere arduratzen dira; aldi berean eta lanpostu berean. Konfinamendu zorrotzenez ere, onuradunen etxeetan geratu ziren, haien bizitzak babesten, harresi lana egiten. Internak inoiz baino internago. Eta kontraturik gabe aritzen direnak ere interna bilakatu ziren, bai menik gabeko joan-etorriak saihesteko.

Urtebete honetan, pandemiak gure jendartearen, instituzioen eta sistemaren beraren askotariko

ahulguneak nabarmendu ditu. Zuei dagokionez edo zuei eragiten dizuen heinean, zein azpimarratuko zenuke?

Pertsonak interdependenteak garela ulertu dugu eta, zentzu horretan, ‘Nork behar du nor?’ galdera birplanteatu beharko genuke. Migratzaile ekonomiko gure askotariko gabeziek bultzatuta iritsi gara hona. Baina gizarte honek ere badu gure beharra, handia gainera. Hilabete hauetan emakume askorengana iristen ari gara, eta gehienek esaten digute “Tira, behintzat lana dut eta nire herrialdean baino gehiago irabazten dut”. Bide luzea egin beharko dugu beldurren gainetik guk geuk geure burua baloratu arte. Baina arrazoiak soberan ditugu, emakume migratu eta arrazializatuok gure gorputzekin ari baikara sustengatzen publikoa beharko lukeen zaintza-sistema.

Publikoa ez ezik, nolakoa beharko luke zaintza-sistema horrek?

Integrala. Onuradunen behar guztiak, fisikoak, psikologikoak eta emozionalak, asetuko dituen, batetik. Eta horretan jardungo duten langileen formakuntza profesionala eta lan baldintza duinak bermatuko dituen, bestetik. Bigarren edo hirugarren graduko menpekotasuna duen pertsona bat ohetik aulkira mugitzeko adibidez, ezinbestekoa da mobilizazio-teknikak ezagutzea, onuradunen nahiz zaintzailearen gorputzak ez kaltetzeko. Era berean, ordutegi eta atsedenaldirik definiturik gabe lanean dabilen zaintzaileak nekez erreparatu-ko die, esate baterako, gaixoa behar afektiboei, ezinezkoa da! Honetan ere zifrak falta zaizkigu, ez dutelako mediku eta psikologoengana jotzen... baina depresioa eta antsietate kasuak ugariak dira langile soziosanitarioen artean. Horregatik, menpekotasuna duten senideen familiei egin nahi diegu dei, gurekin enpatizatu dezaten eta borroka honetara batu daitezen, guztiok irabaziko dugu eta! Gure eskubideak babestuz euren senideen eskubideak babesten ariko dira. Aldiz, prekarietateak zaurgarriago egiten gaitu gure gorputzak zeharkatzen dituzten indarkeria guztien aurrean, eta horrek ondorio negatiboak ditu zaintzen ditugun pertsonengan.

Zeintzuk dira indarkeria horiek?

Ba, emakume, migratu eta arrazializatuak izateagatik sufritzen ditugunak. Arrazismoak forma asko har ditzake: etxean lapurretan egingo dugunaren

mesfidantza, gure jateko eta kozinatzeak ohiturak gaitzestea, ezizen paternalistak... Eta gero, gutako asko, gehienak, Latinamerikako herrialdeetatik etorritakoak gara, eta Mendebaldean emakume latinoen inguruan eraiki diren estereotipoek gehiegikeria askori zabaldu diote bidea. Emakume sutsuaren ideia hori... Zorritzarrez, indarkeria sexuala, berbala nahiz fisikoa, jasan duten emakumeen testigantza zenbait entzun ditugu; gehienetan zaintzen duten pertsonaren senideren batengandik heltzen da. Izaera sexualako proposizioak, ukitzeak eta, kasurik larrienen, bortxaketa, beti kaleratzeko mehatxupean.

Ez dituzue nolanahiko erronkak begi aurrean. Nondik hasi zarete? Zeri heldu diozue lehenik?

Batez ere migrazio prozesuei eta gizarte nahiz lan esparruko integrazio prozesuei aplika dakiekeen legislazioari buruzko informazioa biltzen eta partekatzen ari gara; batzuek ez baitakite zein oinarritzko eskubide dagozkien ere. Gehienek jatorrizko herrialdeetik etorri orduko lehenengo 'etxea' lotuta izaten dute; batzuk zorpetu egiten dira hegazkin txartela ordaintzeko, eta iritsi ondoko egunean hasten dira lanean, kasu askotan etxe barneko langile bezala. Hasierako hilabeteetan batez ere, isolamendua erabatekoa izaten da, osasun larrialdiak eten digitala areagotu du gainera. Beste batzuk erizainak edota fisioterapeutak dira, baina bere burua etxeko enpleguaren nitxo horretara kondena-

tuta ikusten dute hemen. Batzen zaigun kide bakoitzarengandik esperientzia ezberdinen berri jaso eta arazo edo oztopo nagusiak identifikatzen gabiltza. Batzuk izaera orokorrekoak dira; atzeritarrentzako gestio instituzionaletan galduta eta itota sentitzen direla diote gehienek. Eta beste kontu batzuk oso espezifikoak dira, baina etengabe errepikatzen dira.

Adibidez?

Esate baterako, etxeko enpleguetarako kolokazio enpresak gaitasun soziosanitarioa frogatzen duen ziurtagiria eskatzen hasi dira, logikoa denez, familiek langile gaituak nahi dituztelako. Baina gaur egun eskaintzen zaizkien ikastaroen ordutegiak ez dira bateragarriak emakume hauen lanaldiekin. Oso zabaldua den beste kasuistika bat: demagun familia batek egoera irregularrean dagoen emakume bati ordaintzen diola bere senidea zaindu dezan, kontraturik gabe, nahiz eta horretarako beharrezko formakuntza eduki. Bada, Eusko Jaurlaritzako gizarte zerbitzuek senide horri menpekotasuna eta dagokion diru-laguntza aitortuta, familiak emakume berbarekin jarraitu nahi badu eta oraingoan bai lan kontratu bat eginda... ezin du, ez behintzat bi urteko lan-errotzea edo hiru urteko gizarte-finkatzea frogatu arte. Kontrako kasuak ere badaude; alegia, hiru urtero emakume iritsi berri bat ekartzen dutenak, kotizazioa saihesteko. Une honetan, Espainiako Atzeritar Legea da gure prekarietatearen konplize nagusia. Zaintzen ditugun pertsonen on-

gizatearen mesederako, emakume migratu soziosanitarioon erregularizatorako baldintzak berrikusi eta prozesuak azkartu ditzaten eskatzen dugu.

Eta menpekotasuna arautzen duten lege eta dekretuek behar bezainbeste babesten al zaituztete zaintzaileak?

Ba, tamalez, bada honetan ere tranparako aukera ikusten duenik. Zaintzaile diren senideak gizarte zerbitzuen sisteman agente gisa integratzeko eta hauen estatutua erregulatzeko foru dekretuetan bilatzen dute zirikituak. Esate baterako, Bizkaiko lurralde historikoaren kasuan, 192/2018 dekretuak dio, besteak beste, hirugarren gradura arteko odol-kidetasuna duen senidea izan daitekeela zaintzaile, baldin eta onuradunaren etxe berean errolatuta badago. Kasu askotan, halaxe ageri dira dokumentu ofizialetan, prestazioa jasotzen dute, baina errealtatean ez dira menpekotasuna duten pertsonen bizi, eta paperik gabeko emakume bat ekartzen dute, gasituak merketzeko. Orain, txertoa jartzeko hitzorduen kudeaketarekin ere gertatzen ari da: menpekotasuna duten pertsonak zitzatu dituzte lehenik, eta hauen zaintzaile gisa ageri direnak ondoren. Horrenbestez, baliteke senideren batek jasotzea txertoa eta, ondorioz, benetan pertsona dependientearekin bizi eta hazi zaintzen duen emakumea babesgabe geratzea. Eta oso kontuan hartu beharreko beste aspektu bat da auzo eta etxe guztiak ez direla berdinak. Azpiegitura eta erosotasun aldetik, ez da berdina alzheimerak jotako agure bat zaintzea Neguriko txalet batean edo Otxarkoagako zazpigarren solairu bateko apartamentu itxi batean. Kalitate humanoak, baina, ez du zerikusirik klasearekin, eta diru gehien duten familien baitan ere izan dira iruzur esperientzia itsusiak.

Helburuak erdietsi bitartean, nola egingo duzue bidea?

Saretzen segituko dugu, eta kooperatibak sortzea ikusten dugu behin behineko formula egoki gisa. 2018an, adibidez, SINA eratu genuen Bilbon. Kolokazio enpresek ez bezala, bidezko lan baldintzak bermatzen ditugu. Lan kontratuetan soldadak, lan orduak, zereginak... zehazten ditugu; atsedeen eta lo orduak ere bai, etxe barneko langileen kasuan. Kalitatezko zaintza integralak eskaintzeko kualifikatuta gaude, elkar babesten dugu, eta horrela babesten dugu, baita ere, zaintzen ditugun horien ongizatea. ●



AMANDA ALFARO

EMFS elkarteko kidea

Jinotega, Nikaragua, 1972

49 urte ditut, 35 nituenean etorri nintzen. Han negozio bat neukan, jatetxe txiki bat, autobus geltoki handi batean. Baina supermerkatu bat zabaldu zuten eta bezerorik gabe geratu nintzen. Nire seme-alabek 12, 10 eta urte bat zituzten orduan, bakarrik nengoen, eta ez nuen etorkizun zantzurik ikusten eurentzat. Euskal Herrian, lehenengo hamar urteak '7x24' eran lanean pasatu nituen; ustez dependentsia zuten pertsonak zaintzen, baina errealtatean, etxeko zeregin guztiak ere nire gain hartzen. Eta beti etxe barneko erregimenean; 'beltzean' aurreneko urteetan eta gerora ere askotan. Kasurik onenean, etxeko enplegurako kontratu batekin.

Nikaraguatik honanzko bidaia ordaintzeko nire etxea hipotekatu nuen, eta jatetxe hura zabaltzeko eskatua nuen prestamoa ere zor nuen oraindik. Umeak nire ahizparekin eta honen senarrarekin utzi nituen, eta turista bisatu batekin etorri nintzen. Urtebeteren buruan zor guztiak kitatzeko helburua ezarri nion neure buruari, eta txikien ikasketak ordaintzearekin amesten nuen. Bidaia agentzia hark Paristik pasatzen zen tour batean sartu ninduen, geldialdia Madrilén egitea baino seguruagoa omen zelako. Azaroaren 12an atera nintzen Nikaraguatik, hilaren 18an heldu nintzen Donostiara, eta hurrengo egunean hasi nintzen lanean Bilbon. Ezagun batzuen bitartez lotua nuen lehenengo lana; alzheimerra zuen adineko emakume bat zen. Nik orduan oraindik ez neukan gaitz honen berri, egoerarekin izututa nengoen, oso bakarrik eta babesgabe ikusi nuen neure burua, eta ez nekien etxe hartan gertatzen ziren gauza asko gaixotasunak esplikatzen ote zituen, onartezinak ote ziren ala burua galdu ote nuen. Mugitzeko laguntza behar zuen, ahula zen, baina oso autoritarioa: uneoro aginduak, uneoro oihuak, itsusia nintzela, ez nuela ezertarako balio, ez ateratzeko kalera bera gabe, ez hitz egiteko inore-

kin... Emakume hari otorduak prestatu behar nizkion, jaten eman, garbitu, arropak atondu, etxea jaso, erosketak egin... dena. Gauez ere ez nuen ganoraz atsedean hartzeko aukerarik berak ere ez zuelako lorik egiten... Bi hilabete eskasera antsietateak eta takikardiek jota, indarrrik gabe, emakumearen senitarte-

koek eraman ninduten hospitalera, eta ez itzultzeko esan zidaten. 1.000 euro ordaindu zizkidaten.

Gela bat topatu nuen partekatutako etxebizitza batean, Boliviako hiru neskekin batera bizi izan nintzen pare bat astez, eta haien bitartez lortu nuen bigarren lana. Hura ere emakume zaha-



rra zen, baina burua bere lekuan zuen. Izugarri diruduna zen, lau emakume gintuen etxean, bere zerbitzura. Oso arrazista eta kontrolatzailea zen, baina nire lankideen konplizitateari esker lortu nuen arreta soziosanitariorako formakuntzaosatzea. Erosketak egitera atera nintzela esaten zioten, eskolara joaten nintzen bakoitzean. Etxe hartan hiru urte pasatxo egin nituen, larunbatetik eta igandeak barne, uste dut hainbeste iraun zion bakarra izan nintzela! Andrea gaixotu egin zen, eta azkeneraino zaindu nuen. Tira, nireganako tratua ez zen inoiz guztiz zuzena izan, baina nire besoetan hil zen, eta une horretan ikasi nuen gure lan honek asko duela afektibitate, fisikoak ez diren behar eta gabezia asko asetzen ditugula. Bakardadea nire baitan ez ezik, zaindu izan ditudan horien baitan ere ikusi dut sarritan.

Azken hilabeteetan lan kontratu batekin aritu nintzen arren, emakume hura hil zenean berriro ere zerotik hasi beharrean ikusi nuen neuren burua, prestaziorik eta aterperik gabe... beste zerbaite bilatu arte. Eta hori da gutako askoren dinamika. Etxe batetik bestera; zaintzen ditugunak joaten diren arte, edo guk eutsi bitartean. Bitan gertatu zait hori, nik neuk uko egitea alegia. Kasu batean, gosea pasatzen nuelako izan zen. Zaintzen nuen emakumearen semea etxe berean bizi zen, eta esaten zidan gizona nengoela, latinoak ez dakigula jaten. Zopa egitekoak besterik ez zituen erosten, eta ni ezkutuan ari nintzen nire gelatxoan jaten, nire poltsikotik erositako galletak eta gauza hotzak. Beste behin, zaintzen nuen gizonaren semeak izterrak ukitu nahi zizkidalako alde egin nuen. Insistitzen ibili zen hilabeteetan, ea zergatik ez nion uzten laztantzen, eta nire gogoz kontra egitera ere iritsi zen. Beste zenbaitetan, tamalez, nire seme-alabekin gogoratu eta agoantatu behar ez nituen gehiegikeriak onartu izan ditut.

Baina, Euskal Herrira heldu eta lau urtera, bertan bizitzeko baimena lortu bezain pronto Nikaraguara nire umeak ikustera joan nintzenean, mundua etorri zitzaidan gainera. Haien ikasketak ordaintzen ari nintzen, bai. Jatekoa bazuten, ondo jantzita zeuden... baina gorroto ninduten. Zenbat gau pasatuko nituen esna... ahopeka telefono-deia egiteko ordua iritsi zain... Eta orain han nengoan, baina nire seme-alabek ez ninduten besarkatu nahi. Gerora, alaba zaharrak



azaldu dit bizilagunek behin eta berriz esaten zietela amak abandonatu egin zituela; lanean ari nintzela kontatzen niela, baina bizitza bizitzera etorri nintzela hona.

Duela lau urte esan nuen aski dela, nire gorputzak ezin duela gehiago jasan besteren etxean lan egin eta bizitzea, ez behintzat halako esplotazio baldintzetan. Arima galtzera iritsi naiz. Eguna eta gaua nahastera. Dirua irabazi dut, baina hein handi batean nire seme-alaben konfiantza eta maitasuna galdu dudala

sentitzen dut. Nire buruari zin egin diot, beharrak behar, ez dudala inoiz gehiago halakorik onartuko. EMFS elkartekoekin batera, indarrak batzen ari gara, errekonozimendua nahi dugu eta zaintza-lanak soilik galdatzen dituzten familientzako egingo dugu lan. Duela urte pare bat alaba zaharra ekartzea lortu dut. Bere mutil-laguna eta elkarrekin duten umea ere gurekin bizi dira; eta, berriki, mutil-lagunaren anaia bat ere bai. Galdutako denbora berreskuratu nahian gabiltza, harremana sendatzen-edo. ●

EUROKOPA BILBON?

Futbola baino gehiago, aldeko zein kontrakoentzat

Futbola, 22 lagunez osatutako kirola, pasio, inspirazio iturri edo "harmailak testosteronaz betetzeko aitzakia", ikuspegiak bezain ugariak dira jarduerari esleitzen zaizkion definizioak. Baina bada onarpen maila zabala duen ideiarik ere: futbola gutxi batzuentzat negozio borobil bilakatu da. Inor gutxik uka dezake hori gaur egun.

 MIKEL EIZAGIRRE

Europako Txapelketa bezalako ekimen erraldoiak sarreraren aipatu dugun negozio horren adibide dira. Garaikurra ez ezik, milioika euroko irabaziak daude jokoan. Ondorioz, pandemia egoeraren erdian, eskala geopolitiko zabaleko harraparitza-lehia piztu da txapelketa non jokatu den ebatzeko. Bilbo hautagaien artean dagoenez, Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio publikoek ere esku hartu dute, futbol federazioez eta enpresez gain. Hailere, makro-ekitaldiaren bueltan sortutako guztia ez da diruzalekeria izan. Gurean, egitasmoaren zilegitasuna ez-baian jartzeko argudioak mahai-gaineratu dituzten mugimendu sozialak ere piztu dira. Azter ditzagun Eurokoparen nondik norakoak eta hautsak harrotu dituzten gako nagusiak.

HASITAKOIA AMAITZEKO

Txapelketa 2020ko ekainean jokatu behar zen, Europako hainbat herrialde-tako futbol zelaietan –San Mamesen tartean, non Espainiako selekzioak jokatu zukeen etxeko talde gisa–, baina bertan behera geratu zen COVID-19a dela-eta. 2021. urteari begira jarrita, Aleksander Ceferin UEFAko presidentek ohartarazpen hau jaurti zuen Movistar+ telebista kateko albistegian, ziurgabetasun pandemikoa bete-betea zela: "Erabat ziur nago 2021ean Eurokopa ospatu-

ko dela". Herrialde anfitrioiaren inguruan galdetu ziotenean, aldiz, ez zuen erantzun argirik eman: "Hamaika, zortzi, bost ala bakarria izan daitezke". Horrez gain, ez zuen espresuki adierazi derri- gor bermatu beharko direla estadioetan ikusleak bildu ahal izateko baldintzak. Hasiara batean behintzat.

Joan den urrikoak dira hitzok, eta geroztik erakundeek *omertá* gorde dute publikoki Eurokoparen inguruan. Urte berriarekin batera, egoitza bakarraren inguruko zurrumurruak zabaldu ditu UEFA Europako Futbol Federazioak, eta horrek posizionamendu ugari ekarri ditu. *Deia* egunkariaren arabera, "Eurokopa jasotzeko aurreikusten diren eszenatoki ugarietako buruzko ikerketa" bidali zion Bilboko Udalak UEFAri otsailaren amaieran. COVID-19aren egoeraren arabera, publikoarekin, publikorik gabe edo publiko mugatuarekin antolatzea baloratuko dute osasun-autoritateek. UEFAk, berriz, osasun-baldintza egokiak aurkezten saiatuko diren erakunde publikoen txostenak jaso ondoren, txapelketa "baldintzarik onenetan" jokatzeko ahalbidetuko duten hiriburuak hauta-

tuko ditu apirileko goi-bileran; irizpide ekonomikoak lehenetsiz, noski. Besteak beste, harmailen %25-30 artean betetzea ezartzen dute baldintza gisa. Bilboko Udalak, edozein kasutan, egoitza izateko aukera defendatu du behin eta berriz, dagoeneko 1.300.000 euroko inbertsioa egin baitu proiektuko segurtasun zein mugikortasunerako prestakuntza-lanetan. *El Correo* egunkariak

“

Ba al dakizue zenbateko inpektua izango duen? Edozein ekitaldi antolatu behar genuke, baita barraskilo lasterketen munduko txapelketa ere”

Alfonso Gil PSEko
Bilboko zinegotzia

Espainiako Futbol Federazioko presidente Luis Rubialesen hitzak jaso zituen, UEFA-ri ondokoa erregutuz: "Norbaiti entzun diot [Eurokopa] publikorik gabe ez dela errentagarria. Hiru partida edukitze hutsak eta munduaren aurrean erakusleho izateak publizitatean milioi asko balio duen ukiezina darama, harmailak hutsik egon arren".

El Mundo egunkariak otsailaren 18an aditzera eman zuenez, kirol jardueren emaitza ekonomikoa baldintzatzen maisuki aritzen da Rubiales, zeinak kereila bat jaso baitzuen ustezko hertsapen, mehatxu zein prebarikazio administrati- boengatik. Ikus-entzunezko eskubideen ustiapena lortzeko Iberdrola Ligako taldeak estutzea leporatu diote.

ERRENTAGARRITASUNA KOLOKAN

Hainbat instituzio irrikaz dira Eurokopa Bilbon joka dadin, kosta ahala kosta. Izan ere, aurreikuspenei begira, Rubialesek ez ezik, Xabier Ochandiano Bilboko Udaleko Garapen Ekonomikoko zinegotziak ere gogorarazi zuen Eurokopak hasiera batean 5,5 milioi euroko gastua zekarren arren, “beste 84 milioi” itzuliko zituela. Hori guztia, gainera, “hoteletara, jatetxeetara, dendetara eta bestelako saltokietara” joango litzateke, Ochandianoren aburuz. Haien zoritxarrerako, azken zifra hori murriztu egingo litzateke publikorik ez balego edota edukiera murriztuko balute. Ceferinek argi du zaletuen garrantzia, balantze ekonomikoa epika futbolzalez apaindu arren: “Zaletuek egiten dute futbola horren berezi, eta hori beste edozein txapelketatan bezain egia da Eurokopan. Ahalik eta tarte gehien eman behar diogu geure buruari estadioetara itzuli ahal izateko”.

“BAITA BARRASKILO LASTERKETA ERE, BEHARREZKOA BALITZ”

Hainbat estatu eta euren futbol federazioak UEFA limurtzen saiatzen ari dira, mozkinen zatia poltsikoratzeko helburuarekin. Bide horretan hitz ederrek ezer gutxi balio dute, baldin eta herrialdeak ez badira azpiegitura aproposak, baldintza pandemiko “leunak” edota segurtasun irizpide zorrotzak aurkezteko gai. America TV atariak herrialdeen arteko asimetriak nabarmendu zituen, hautagai potentzialen indar zein ahulguneekin. Izan ere, UEFaren aukera bat “herrialde bakarreko Eurokopa” litzateke, Errusia ala Alemania anfitrioi, bietan baldintza epidemiologikoak zertxobait hobeak diren heinean. Bigarren hipotesia, aldiz, txapelketa osoa biltzeko adina futbol zelai dituen hiriburu bakarrean egitea da: Londresen, non COVID-19aren aldagai britainiar arriskutsua dagoen. Azkenik, “hamabien Eurokopa” legoke, mugikortasunaren neurri murriztaileek hein handi batean oztopatzen dutena.

Horiek dira hautagaitzaren lehiarako baldintzak. Bien bitartean, herrialde baikoitzeko hedabideek, futbol federazioek zein instituzioek etsi-etsian zuritzen dituzte euren buruak, pastelaren zati bat eman diezaieten. *El Independiente* hedabideak Bilboko PSEko bozeramaile eta zinegotzi den Alfonso Gilen hitzak ekarri ditu gogora otsailaren lehenean: “Ba al dakizue zenbateko inpaktua izango duen, hiriaren irudiari dagokionez? Edozein ekitaldi antolatu behar genuke, baita barraskilo lasterketaren munduko txapelketa ere”. Erreguak erregu, UEFArena izango da azken hitza, eta lerrook idazten garen unean erabakia hartzeke dagoen arren, bistan da zeintzuk diren erakundearen lehentasunak. Bilbok irizpideak beteko dituen ala ez, hor dago koxka.

ISRAEL BOLUNTARIO

Gisa honetako beste zenbait ekitaldi handitan gertatu den moduan, Eurokopa hartzeko ere bere burua aurkeztu du Is-



‘GELDITU DEZAGUN’ mobilizazio nazionalaren aurkezpen ekitaldian bildu ziren zenbait herritar, Bilbon.

raelek. Maniobra horrek bi helburu ditu behinik behin: Palestinako herriaren aurka gauzatzen ari den sarraskia ezkatzea eta nazioarteko komunitatearen aurrean "Europako herrialde zibilizatua" dela erakustea, BDS bezalako mugimenduek salatu dutenez. Gainera, *Marca* kirol egunkariak seinaltatu duenez, Israelek bere zuzenbide estatuko herritar gisa aitortzen dituen 9 milioi biztanleetatik 3,8 milioi COVID-19aren aurkako txertoa jaso dute jada. Europakoak baino zifra hobekia dira, inondik inora. Hori gutxi balitz, Txapeldunen Liga bertan jokatzeko aukera ere luzatu du Israelek, eta eskaintza balortuko duela erantzun dio UEFAk.

ETEKIN EKONOMIKOEN BILA

Euskal Herrira itzuliz, beste aktore esanguratsu batek salto egin du Eurokoparen tirabiraren joko-zelaira: Eurocopa Honi Ez plataformak. Historia bulego dotoreetatik kanpo ere idazten denez, mugimendu sozialek euren apustua egin dute ekitaldi erraldoiaren aurrean. Kolektiboa kritiko azaldu zen Bizkaiko hiriburuak 2020ko Eurokopa jaso zezakeela jakin bezain laster, eta hari muzin egiteko hainbat arrazoi zerrendatu zituen, hala nola, "langile klasearen esplotazioa areagotzea, euskal selekzioaren ofizialtasuna ukatzea, emakume langileek sufritzen duten bio-



lentziaren areagotzea eta Euskal Herria faxistaz eta polizia indar armatuz betetzea". UEFA eta gainerako instituzioak egitasmoa 2021erako berrantolatzen

Eurocopa Honi Ez
mugimenduak salatu
duenez, hura sustatzen
ari direnek "osasunaren
gainetik etekin ekonomikoak
lehenetsi dituzte, askatasun
politikoak murriztu eta
gizartea kriminalizatu"

hasi zirenean, Eurokopa Honi Ez-ek salatu zuen "osasunaren gainetik etekin ekonomikoak" lehenetsi direla, "askatasun politikoak murriztu eta gizartea kriminalizatu". *Gelditu dezagun* kanpaina jarri zuen abian, eta bide horretan, apirilaren 10ean Bilbon mobilizatzeko deialdi nazionala egin zuen.

DRONE BAT SAN MAMESEN

Martxoaren 20an, Athletic eta Eibarren arteko partidaren 68. minutuan objektu hegalaria bat lurreratu zen San Mames estadioko berdegunean, *Bilbao 2020 Eurocopa Honi Ez* lemadun bandera laranja zintzilik zeramala. Tramankulua *drone* bat zen, urrutitik pilotatutako hegazkin txiki bat. Ekintza horrek bi ondorio bederen izan ditu, txapelketa Bilbon ospatzea nahi dutenek begi onez ikusiko ez dituztenak. Alde batetik, Eurocopa Honi Ez plataformaren aldarrikapen kritikoak zelai erdira eta mundu osoko hedabideetara zabaldu dira. Bestetik, estadioaren segurtasun protokoloa ezbaian jarri du, Eurokopako hiriburuen hautaketa prozesuaren erdian. Horrek guztiak erakusten digu Eurokopa boteretsuentzat futbola baino zerbait gehiago den bezala, gizarte mugimenduetako kideentzat ere kirolek harago doala, politiziorako abagune eta gudu-zelai bat gehiago bilakatzea lortu baitute.



ERAKUNDEEN BABESA. Juan Mari Aburto Bilboko alkatea, Aleksander Čeferin UEFAko presidentea eta Ángel María Villar Espainiako Futbol Federazioko presidente ohia, Euro 2020aren logoaren aurkezpen ekitaldian, 2016an.

“Eurocopa honi ez. Gelditu dezagun”

Larunbata apirilak 10, goizeko 11:00k, balizko Eurokoparen segurtasun-hesiaren eraikuntza lanak San Mames estadioaren atarian, eta horrekin aurrez aurre, Eurocopa Honi Ez! plataformaren materiala saltzen duen postu bat. Minutuak aurrera joan ahala, gazte taldeak biltzen hasi dira zelaiaren inguruko kale, taberna eta kafetegietan. 12:00ak heldu dira, eta milaka lagun daude jada; gehiegi, modu desordenatuan egoteko. Manifestazioaren antolatzaileek “Eurocopa honi ez, gelditu dezagun” dioen pankarta zabaltzen dute Felipe Serrate kalearen parean, eta hiru zutabetan banatu dituzte bertaratu diren guztiak, segurtasun distantziak errespetatuz.

Manifestazioa futbol txapelketaren aurkako oihuekin hasi da, Sabino Arana etorbidean behera. Ertzaintza hiru furgoirekin atzetik zelatan dutela, Bihotz Sakratuko biribilgunera iritsi eta eskuinera jo dute, Kale Nagusirantz. Salto-kietatik sartu-irtenean dabilzan pertsonak mobilizazio zaratzatuari so gelditzen dira. Ibilbidean zehar, bengalei, ke-ontziei eta plataformaren banderola laranjei eusten diete kideek. Zenbait minuturen buruan, Moyua Plazara iritsi dira, “espainolismoa suntsitu” eta “langile antolakuntzaz gelditu” aldarrikatuz. Primark saltokiaren eraikuntza-lanean dabilen

behargin bat aldamiotik mugikorrarekin filmatzen ari da manifestazio jendetsua. Eskuinetik inguratu dute plaza, Kale Nagusian behera jarraitzeko. Abandora iritsi eta Buenos Aires kalerako bidea hartu dute. Bertan, Bilboko Justizia Epaitegiaren parean, “Justizia Inigorentzat!” oihuka hasi dira manifestariak, Iñigo Cabacasen heriotzaren 9. urteurrenean.

Manifestazioa Bilboko udaletxearen aurrera heldu da, eta antolatzaileek eskaileretan prestatu dute azken hitzartzea, mikrofonoa eskuan. Hala, milaka lagunen aurreran azaldu dute plataformaren irakurketa. Euren esanetan, Euskal Autono-

mia Erkidegoko instituzioak “kosta ala kosta” ari dira eusten Eurokopa Bilbon ospatzeko asmoari. Arduradun politikoak pandemiaren, krisi ekonomikoaren nahiz eskubideen galeraren aurrean “ezikusiarrena” egiten ari direla azpimarratu dute. EAJri, adibidez, “dena diruagatik” jarrera sustatzea egotzi diote kirol ekimen erraldoiaren bultzatzaile autonomiko eta lokal gisa. Horrekin bat, hilabetez hilabete jazo den askatasun zibil eta politikoen urraketa “erabat arbitrarioa” izan dela salatu du kolektiboak: “Horrela bakarrik uler daiteke Eurokopa jokatu bai, baina biltzeko debekua edo etxeratze agindua mantentzea”. Azkenik, Espainiako selekzioak Bilbon jokatzeko “proiektu espainolista atzerakoian sakontzea” dakarrela ohartarazi dute.

GASTEIZEN ERE BAI

Mugikortasun askatasunen murrizketak tarteko, arabarrak ezin izan dira Bilbora joan. Hori bai, Eurokoparen aurkako protesta ez da zokoratu. Andre Maria Zuria- ren plazan elkartu dira dozenaka lagun, lelo berarekin. Debekuak debeku eta Bilboko baina eguraldi kaxkarragoarekin, aldarrikapen eta irakurketa kritikoak entzun dira Gasteizen ere bai.

IRUÑEAN, DEBEKUA

Iruñeko Gaztelu Plazan egitekoa zen mobilizazioa debekatu egin du Nafarroako Gobernu Delegaritzak apirilaren 9an. Horren aurrean, ondokoa adierazi du Eurocopa Honi Ez-ek: “Osasun egoeraren aitzakipean izaera totalitarioko neurriak aplikatzen jarraitzen dute, askatasun politikoak berriz ere murriztuz”. Gainera, erabaki horren kontraesanak ere nabarmendu ditu plataformak: “Pandemiaren egoera Euskal Herrian nahiko ona da 13.000 ikusle San Mamesen sartzeko, baina kaxkarregia aldarri politikoak plazartu ahal izateko”. Ondorioz, ez da manifestaziorik izan Nafarroan, baina “aldarriak zabaltzen” jarraituko dutela adierazi dute. Horrekin batera, “mobilizazioei adi egoteko” gonbita luzatu dute. ●



1936KO GERRAKO ARGAZKI EZEZAGUNAK

KOCH KEAREN ATZEKO ITZALA



Errepublikar hegazkinen eskudrila Ebroko frontean. Sigfrido Koch Bengoecheak tropa frankisten atzeguardian atera zituen argazkiak, bonbardaketak egiten zituen abiazio italiar eta alemaniarrari ere bai; baina 231 argazkiz osaturiko gerrako albuma ezkutuan eduki zuen.

Sigfrido Koch Bengoechearen senideek Donostiako San Telmo Museoari emandako argazki bildumetan, orain arte sekula argirik ikusi gabeko argazkiak daude. 1936ko Gerraren krudela suma liteke hildako gorputzetan, hegazkinen eta misilen orden perfektuan, eta kiskalitako eraikinen hezurduretan, Durango, Zornotza edo Gernikakoak kasu.

 **URKO APAOLAZA AVILA**

 **SIGFRIDO KOCH BENGOCHEA / SAN TELMO MUSEOA**

Argitaragabeko gerra zibileko argazkiak ez dira egunero topatzen, dokumentu historiko balioitsuak dira, 1936ko faxisten estatu kolpeak abiarazitako gatazka hartan gertatutakoa konprenitzeko oso lagungarriak. Horregatik, Sigfrido Koch Bengoechea (1908-1973) argazkilariaren sendiak 2019an Donostiako San Telmo museoari dohaintzan utzitako funtsaren zati batek arreta berezia merezi du: 1937an eta 1938an atzeguardia frankistatik hartutako 231 irudi, 80 urtez ezkutuan izandako album batekoak.

San Telmon ikusgai dira orain argazki ezezagun horiek, maiatza-

ren 23 arte zabalik den *Kearen eta lanbroaren artean* erakusketan. Juantxo Egaña eta Lee Fontanella komisarioen eskutik, gerrako argazki horiez gain, beste hainbat eduki paratu dituzte, garaiko aldizkari ilustratuak edo beste hainbat argazkilari ezagunen lanak kasu, Koch-en irudi horiek testuinguruan jartzeko. Erakusketak bi parte zeharo ezberdin ditu: gerrakoa bata, eta gerraostean egindako euskal irudi idilikoek osatutakoa bestea, *1948an País Vasco. Gipuzkoa*. liburuan argitaratuak. Nabaria da bien arteko aldea, “galdutako paradisu baten eta berreskuratutako paradisu baten artean dagoen distantzia ikustea” da helburua.



GERRAKO ALBUMA

1937ko apirilaren 29an Esteban Urkiaga *Lauaxeta* atxilotu zuten frankistek, olerkari ezagun eta *Gudari* aldizkariko zuzendaria. *La Petite Gironde*-ko korrespontsalei erakusten ari zen Gernikan egun batzuk lehenago bonbardaketak utzitako txikizioa. Cóndor Legioaren sar-raskiaren irudiak mundu osora zabaldu zituen nazioarteko prentsak egun horietan. Ekainaren 11n Lauaxeta Gasteizko Santa Isabel hilerrian fusilatu zuten.

Ingurumari horretan Sigfrido Koch Alemaniatic itzuli berria zen, bere familiarekin –aita kontsul alemana zen eta pasaporte diplomatiko orri esker erbeste-ratu ziren gerra lehertu zenean lurralde hartara denbora batez–. Gernikan, suak jandako eraikinak jaso zituen kamerarekin, baita Zornotzan, Galdakaon eta Durangon ere; gerra frontearen beste aldetik ordea, frankisten aldetik.

Ondoren argazki horiek ezkutatu egin zituen. Zergatik? Ez dakigu, baina bistan da deserosoak zirela beretzako: “Argazki horiekin ematen du galderak egiten ari dela etengabe”, dio museoko gidak egu-notan antolatutako bisitetako batean.

Gerrako album original zaharkitua

ere ikus daiteke erakusketan, irudi guz-tiak erabat zuzen jarrita, baina krono-logia eta geografia orden espezifikorik gabe. Herri suntsituez gain, *Burdinazko Gerrikoa*-ren irudiak daude, baita gorpu

Sigfrido tropa frankisten
atzetik abiatzen da,
askotan egun luzetako
bidaietan, gerraren
atzealde horren itzalak
klik eta klik harrapatuz,
nahiz eta ez dakigun zerk
motibatu zuen horretara

fusilatuenak ere, Bilboko Artxandako bidean edo Derioko hilerrian: “Argazki-lariak balaz txikitutako hormak erakus-ten dizkigu –azaldu zuen Egañak Kochen bizitza eta obraz emandako hitzaldian–.

Sigfridoren argazkiak dokumentu baka-rra dira, denak batera testigantza pare-gabeakoa”.

Atentzioa ematen dute Ebroko frontean abazio italiarrari eta bon-bei ateratako argazkiek –1938an Do-nostiako Kursaal frankistek “etsaiari harrapatutako armen” inguruko era-kusketan hartu zuen parte–, argiarekin gerra moderno eta futurista harrapatu nahi izan balu bezala. Izan ere, Sigfrido Kochek zenbait argazki hegazkin aleman eta italiarretatik atera zituen. Ze harre-man zuen haiekin? Erantzuna konplexua da, bere eta bere familiaren biografiari erreparatuz behintzat.

“GAUETIK GOIZERA DENA ONDORATZEN DA”

Sigfrido Kochen aita, Willy Koch, XIX. mende amaieran iritsi zen Donostiara Alemania iparraldeko herri batetik eta Benjamin Resinesekin argazkilaritza teknikak ikasi ondoren estudioa ireki zuen Gipuzkoako hiriburuko Askatasu-nen hiribidean. Maria Magdalena Bengoechearekin ezkondua, lau seme-ala-ba izan zituzten eta argazkilari familia ezaguna bihurtu zen. Sigfridok ez ezik,



Erakusketa Donostiako San Telmo Museoa dago ikusgai eta bi atal oso desberdin ditu: bata gerrakoa, iluna bezain krudela (irudian), bestea gerraostekoa, Euskal Herri idilikoa adierazten duena, argazkilariak “galdutako paradisu bat berreskuratu” nahi izan balu bezala.



Ezker-eskuin eta goitik-behera: Gernika kiskalia izan ondoren, suntsipenaren ikuspegia; alemaniarren bonbak ordenean jarrita, gerra futurista baten erakusgarri, Ebroko frontean; soldadu frankistak tanke errusiar baten aurrean bere gidari errepublikar ikaztuarekin; fusilatutak Bilboko hilerrian. Horma horretan tiroek utzitako zuloei ere irudiak atera zizkien Koch Bengoecheak.

bere anai-arrebek (Willy, Carmen eta Pablo), bilobek eta birbilobek ere egin dute ibilbidea lanbide horretan.

1936ko irailaren 13an nafar erreke-teak Donostian sartu zirenean, koch-tarren estudioa arpilatu zuten; familia osoa Alemanian erbesteraturik zegoen jadanik. Sigfridok –Iñaxi Arrutirekin ezkondua eta haurra izan berria– eguneroko antzeko zerbait idatzi zuen garai haietan, eta bere burua “apolitiko” gisa zuen arren, jatorri alemaniarra izateak konpromiso batean jarri zuela aitortzen du: “Gaur, joko zelai politikoan nahastuta aurkitzen dut nire burua, (...) munduak gurea zirudien eta gauetik goizera dena ondoratzen da”.

Koch familia ez zen frankista, are guxtiago nazien aldekoa –aitak errepresiotik ihesi zihoazenei lagundu zien–, baina bestalde, bere germanofilia nabarmena zen. Hala, euskal eta alemaniar aberriak maitatzea gauza bera

ziren argazkilariarentzat. 1937ko udaberri aldera Euskal Herrira itzuli zirenean, Sigfrido tropa frankisten atzetik abiatzen da, askotan egun luzetako bidaietan, gerraren atzealde horren itzalak klik eta klik harrapatuz, nahiz eta ez dakigun zerk motibatu zuen horretara. Hor ikusiko dugu alemanen hegazkine-tan igota edo Jose Varela jenerala erretratatzeko, haren eskaintza eta guzti.

Bigarren Mundu Gerran *Wehrmacht*-ak hiru anaiak errekrutatzen ditu nazien alde borrokatzeko ekialdeko frontean eta Italian. Frontetik ihes egin, atxilotu, berriz ihes egin... Baionan bukatuko dute, erresistentziako kide baten etxean ezkutatuta, eta gerratik itzultakoan, pistola bat koltxoi azpian dutela lo egingo dute hiruek, errepresaliatuak izateko beldurrez: “70eko hamarkada erdialdean Urumea ibaian amaitu zuten arma horiek”, dio Egañak.

Sigfrido ez zen gerra argazkilaria, ezin dugu Robert Cappa baten mailan jarri. Bere argazkiak hotzak dira, “gordinak” akaso, Lee Fontanellak erakusketaren katalogoan idatzi bezala, baina ez ziren Gernikan gertatutakoaren gezur-harresia eraisteko sortu; horretarako George Steer kazetariaren kronikak edo Herbert R. Southworth historialariaren lanak ditugu. “Uste dut –jarraitzen du Fontanellak– Sigfrido Koch Bengoechea, bere lanaren bidez, nolabaiteko ordena ezartzen ari zela kaosean, baina ez dakit ziur gertaerak berak irrazionalak iruditu ote zitzaizkion, nahiz eta, gerra bat egotea deitoratu zuen”.

Erakusketa honek argazkilariaren bestelako ikuspegia ematen digu beraz, eta iradokitzen digu gerrako argazkien funtzio pertsonalago bat, agian askatzailea ere badena, kearen atzeko itzala islatzeraino. ●

HAIZEA RAMIREZ DE ALDA ETA URKO AIERBE EUSKAL HERRIAN EUSKARAZEKO KIDEAK

“Sentsazioa da instituzio batzuek euskalgintzaren isiltasuna erosi nahi dutela”

Euskal Herrian Euskarazek aurrera egingo du baldin eta eraberritzen bada. Hala azpimarratu du mugimenduak egin berri duen barne-hausnarketan. Garai berrietara egokitutako EHE antolatu nahi dute orain. Independentzia beharra aldarrikatuko dute Euskal Herria euskalduntzeko tresna modura. Instituzioen eta euskalgintzaren arteko harreman eredu berria proposatu dute, bigarren horrek azpikontrata moduan funtziona ez dezan. Haizea Ramirez de Alda eta Urko Aierbe mugimenduko kideak elkarriketatu ditugu.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  DANI BLANCO

Nola dago EHE?

Haizea Ramirez de Alda: Azken urteetan euskalgintza bezala egon da, geldirik edo lozorroan. Orain egin dugun eraberritze prozesuaren ondoren, badirudi heldu zaigula garaia berriro kalera indartsu ateratzeko, gogotsu gaude. Prest gaude Euskal Herria euskalduntzen lanean jarraitzeko. Egokitze prozesuan ateratako guztia jendearekin konpartitzeko eta gurekin batera lan egitera jendea erakartzeko ilusioz gaude.

Euskalgintza, hizkuntza politikak eta euskararen normalizazioa *impasse* egoeran daudela diozue. Zuek ere bai?

Urko Aierbe: Hala da. Faktore gehiago daude, baina bi nagusi ikusten genituen. Batetik, EHEk 40 urte eginak ditu eta goitik behera berrikustea behar zuen, izaera, oinarri ideologikoa, funtziona-

mendua, dinamikak eta abar. *Ikusmira* dokumentua eraberritze horretan kartzatzen da. 1979an aurkeztu zen sorrera agiria eta hura garai berrietara egokitu dugu. EHEk barrura begira egin behar zuen lana izan da. Bestetik, ingurunea edo abagunea dago, azken hamarkadan gertatutakoa. Euskalgintza osoa egon da lozorroan, nahi eta ezinean, garai berrietara egokitu ezinean.

H. Ramirez de Alda: Ikusi genuen egoerak goia jo zuela. Hizkuntza politikek ez zuten aurrera egiten, ezagutzari dagokionez hainbat eta hainbat pertsona euskaldundu gabe, erabilera kateatuta, murgiltze ereduak bereak emanda... Horrek ere eragin digu jauzia emateko orduan.

Ikusmira agiria EHE berrindartu baten seinale da?

U. Aierbe: Hori da borondatea. Gure bu-

ruari galdetu diogu ea EHEk euskararen normalizazioan baduen funtziorik eta erantzuna izan da baietz, baldin eta bere burua eraberritzen badu.

Zein oinarri humano du orain EHEk? Militatzeko ereduak aldatu dira. Nola antolatuko zarete?

U. Aierbe: Militantzia ereduak aldatu dira, jendeak parte-hartze politiko-soziala egiteko moduak aldatu ditu. Ekarpinak egiteko moduak aldatu dira eta aldatuko dira, are gehiago gazteetan. Aldaketa horietara egokitu beharra genuen. Dena den, aldeko baldintzak daudela uste dugu, hau da, gazteek parte hartzeko modu berriak izanda ere bada-go abiapuntuko erregaia: gazteak euskaltzaleak dira. Kontua da erregaia ondo antolatzea eta eraginkorrak izatea emaitzak lortzeko begira.

H. Ramirez de Alda: Berria izango da



Haizea Ramirez de Alda:
"Lehendik dakartzagun bi
ildoak jorratuko ditugu:
batetik, aldarrikatzea eta
salatzea, eta bestetik, Euskal
Herri euskalduna modu
eraikitzailean egitea. Salatu bai,
baina eraiki ere bai".

komunitatearen kontzeptua. EHEko kide antolatuez gain, garrantzia emango diogu gure oinarriekin bat egiten duten euskaltzaleekin osatu dezakegun sareari.

U. Aierbe: EHEk bazeukan antolaketa eredu klasikoa, nolabait esan, egitura nazionala, herrialdekoa, eta abar. Gauza batzuk mantendu behar dira, baina garai hauetan antolaketak eta funtzionamenduak malguagoak eta eraginkorragoak izan behar zuten. Komunitatearekin esan nahi dugu parte hartzeko modu anitz eta desberdinak planteatuko ditugula. Euskararen normalizazioari ekarpena egin nahi dioten euskaltzaleei bestelako moduak eskaini nahi dizkiegu. Hurrengo hilabeteetarako lana izango da asmo horiek zehaztea.

Bestalde, herrietako talde klasikoak indartuko ditugu. Taldeok, azken urteotako euskalgintzaren egoeraren antzera, apalduta daude, baina aurrera begirako

zeregin nagusietako bat da horiek aktibatzea.

Independentziaren beharra lehen lerrora ekarri duzue. Zein gogoeta egin duzue?

H. Ramirez de Alda: Lehen ere bage-nuen buruan, orain espresuki idatzi edo adierazi dugu. Frantziako eta Espainiako estatuen menpe argi dago ezinezkoa zai-gula benetan euskaraz biziko den Euskal Herri euskalduna lortzea. Independentzia ez da helburua, baizik eta gure helburua egi bihur dadin beharrezkoa dugun tresna. Txillardegik esaten zuen euskara estatua izanda agian salbatuko dela, baina estatutik gabe ziur ezetz.

U. Aierbe: Bi adibide emango ditut. Due-la gutxi Espainiako Kongresuan Kontseiluak eta estatuko beste hainbat berezko hizkuntzen aldeko taldeek ez-legezko proposamena aurkeztu zuten. Puntu ba-

tean gaztelaniaren inposizioa amaitzea eskatzen zen eta puntu hori ez zen onartu. Beste adibidea Lasarte-Orian gertatutakoa da. Udalak gazteei begirako aisia eskaintza euskara hutsez izatea eskatu zuen eta epaitegiek esan dute ezin duela izan euskara hutsezkoa.

H. Ramirez de Alda: Argi dugu independentzia ez dela nahikoa eta zer garrantzi duen ez itxarotea independentzia lortu arte. Burujabetza prozesua euskaraz egin behar da, garrantzitsua da gaurdanik hastea sortzen buruan dugun Euskal Herri euskalduna.

Irlandakoa gertatzeko arriskua ez al da handia?

U. Aierbe: Horregatik aipamen agerikoa: independentzia ez da helburua. Burujabetza behin lortuta ere, Euskal Herri euskalduna lortzeko lanean jarraitu beharko da eta euskaraz bizitzen ja-

rraitzeko etengabeko arreta eta kezka egon beharko da. Ez dira Frantziako eta Espainiako estatuak bakarrik, mundu globalizatu honetan ingelesaren oldaraldiak beste erronka batzuk jartzen dizkigu hizkuntza komunitate bezala.

Euskalgintzako eragileen egitekoa da independentzia aldarrikatzea?

U. Aierbe: Gure gogoeta egin dugu eta euskalgintzako eragileekin hurrengo hilabeteetan partekatuko dugu. Ea proposamena nola hartua den, ez gara aurreratu. Alabaina, euskalgintza gero eta gehiago ari da esplizituki adierazten burujabetzaren beharra. Kontseiluak berak egin du. Gure Esku-ren *Hamaika Gara* dinamikan euskalgintzako hainbat eragile gaude eta kezka partekatua da zerbait egin beharra. Adostasuna dago hizkuntza politikek goia jo dutela eta urrats berriak eman beharra dagoela.

Espainiako eta Frantziako estatuak aipatu dituzue. Euskal Herriko hiru administrazioen hizkuntza politikek ere badute eragina hizkuntzaren normalizazioan. Hizkuntza politika ausartagoak egin ditzakete. Haiei kontu hartuko al diezue?

U. Aierbe: Dituzten eskumenekin askoz gauza gehiago egin zitzaketen. Mila aldiz kontatu da Kataluniako adibidea. Antzeko eskumenak izanda, helburua oso argi izan du: hizkuntza nagusia katalana izatea bere lurraldean. Eta neurri ausartak hartu dituzte, edo hobe esanda, ausartak baino, hemen baino neurri garatuagoak, ez baita ausardia kontua borondate kon-

tua baizik. Han oso argi zuten belaualdi berriek katalana jakin behar zutela eta murgiltze eredia orokortu zuten. Hemen 40 urte eta gero hor gabilta irakats ereduaren sistemarekin, A, B D, G, frantses hutsen... Eraitza da gaur egun oraindik ere milaka ikaslek euskararen ezagutza nahikorik gabe bukatzen dituztela ikasketak. Irakaskuntza aipatu dut, baina arloz arlo egin genezake ariketa.

H. Ramirez de Alda: Administrazio publikoak, batetik, gehiago egin dezake, eta bestetik, euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatzeko ardura du. EHEren eginbeharretako bat gure eskubideak aldarrikatzea da. Hortaz gain, EHEk euskaldunak aktibatu behar ditu, kontzientzia hartzen lagundu eta aktibazio horren bidez administrazio publikoei presioa egingo zaie pauso ausartak eman ditzaten.

Ikusmira agirian diozue jarduera nagusiak desobedientzia eta aktibismoa izango direla. Nola desobedituko duzue?

H. Ramirez de Alda: Desobedientzia lotuko dugu euskaraz bizitzeko hautuarekin. Joan gara edozein tramite egitera leku publiko batera eta ez gaituzte euskaraz artatu; guk gureari eustea izango litzateke desobedientzia ekintza. Horrelako mila jarrera har daitezke gure egunerokoan.

U. Aierbe: Gure hausnarketa prozesuan jaso dugu badagoela lasaitze bat, garai bateko euskaltzaleasun aktibo, exigente eta aldarrikatzailea leundu dela hainbat arrazoiengatik eta ezinbestekoa da hori berreskuratzea.

Horregatik, dei egin nahi diegu euskaltzaleei eta euskaldunei, berriz ere beraien hizkuntzan bizitzeko hautua egin dezaten, hautu kontziente eta aldarrikatzailea. Aurrekoa mitifikatu gabe, lehen bazegoen exigentzia maila handiagoa eta orain Haizeak aipatu dituen egoera horietan, ez badigute euskaraz egiten berehala aldatzen dugu hizkuntza. Grina hori berreskuratu behar dugu, EHE berri honen erronketako bat da.

“Euskalgintzak kritikatzeko jarraitzeko eskubide osoa du. EHEk behintzat, hala egiten jarraituko du”

Urko Aierbe

Gaztealdia izan daiteke adibideetako bat?

U. Aierbe: Ekimen hura eredugarria izan zen eta poztu gintuen gazteak protagonista izatea. Horrelako gehiago behar ditugu.

Bestelako zein desobedientzia ekintza mota egingo ditu EHEk?

Historikoki erabili izan dituen metodoak berreskuratuko ditu ala bestelakoak izango dira?

U. Aierbe: Ez da apurketa, egunerokoan baliagarriak ziren gauzak mantendu ditugu. Oraindik forma eman behar dugu, dinamika eta egitasmo zehatzetara ekarri. Tokian tokiko eremuak irabazi nahi ditugu euskaraz bizi ahal izateko eta irabazitako eremuetan euskararen aldeko hautua egitera bultzatu nahi ditugu herritarrak. Adibide bat jartzearen, mediku euskaldunak behar ditugu eta toki askotan ez daudelako haien aldeko aldarrikapenak egin beharko ditugu. Baina mediku euskaldunak dauden lekuan haiek hautatzeko dinamikak ere sustatu nahi ditugu. Administrazioari erantzukizunak eskatuko dizkiogu, baina eremu askotan emanak diren aurrerapausoak baliatzeko mezua helarazi nahi diegu herritarrei.

H. Ramirez de Alda: Lehendik dakartzagun bi ildoak jorratuko ditugu: batetik, aldarrikatzea eta salatzea, eta bestetik, Euskal Herri euskalduna modu





eraikitzailean egitea. Salatu bai, baina eraiki ere bai.

Nola irudikatzen duzue euskalgintzaren eta instituzioen arteko harremana?

U. Aierbe: Argi dugu euskara normalizatzeko ezinbestekoa dela herri mugimenduaren eta instituzioen arteko elkarlana. Sartu gabe zer gertatu den azken hamarkadan, bestelako gobernantza eredu bat egituratzea nahi dugu. Orain dela lau urte egin genuen aurre-gogoetan planteatu genituen oinarritzko irizpide batzuk. Elkarlan egokia egon dadin funtsezko irizpidea da instituzioek hizkuntza politika egokiak aplikatzea. Alegia, elkarlana izan dadila hizkuntza politika egokiak aplikatzeko. Bigarrenik, elkarlanerako eredu berri horretan elkar onartu behar da. Herri mugimenduen aldetik badago instituzioen onarpena, baina instituzioen aldetik ez dago onarpenik eta zilegitasun aitortzarik. Hirugarrenik, elkarrekin hausnartu eta erabakiak hartu behar dira, dela egoeraren azterketa, zein neurri hartu, zein egitasmo gauzatu, finantzaketa... Oraingo ereduaren instituzioek hausnartzen eta erabakitzen dute eta herri mugimendua, asko jota, azpikontrata da. Hainbat egitasmo garatzeko dirua eskaintzen zaigu, baina beraiek erabakitzen dutena egiteko.

Euskaraldiak proposatzen duzuen ereduaren printzipioak betetzen ditu ala haratagoko zerbait izan behar du?

U. Aierbe: Bai, haratago izan behar du.

Euskaraldia aurreko ereduarekiko hobekuntza bada, zalantzarik gabe, baina ez da nahikoa eta gehiago sakondu behar da instituzioek euskalgintza osoa onartzen eta aintzat hartzen.

Harreman horrek ez dauka arriskua instituzioen menara gelditzeko eta hizkuntza politiken aurrean izan beharreko kritikotasuna epeltzeko?

U. Aierbe: Hori da arriskua. Beste momentu batzuetan konfrontazio garbia zegoen, ezinikusia, ez zegoen hitz egiteko espaziorik ere. Orain, EAEn, instituzioak hasi dira bestelako bide bat jorratzen eta positiboki baloratzen dugu, baina ez da nahikoa. Arriskueta bat da menpekotasunak sortzea eta batez ere ekonomikoak. Guk planteatzen dugun eredu ez da instituzioek erabaki eta euskalgintzak jorratu, horretarako euskalgintza kontratatuta.

H. Ramirez de Alda: EHE definitzen duen ezaugarrietako bat da instituzioekiko autonomia. Garrantzi handia ematen diogu presio lanari. Horrek ez du baztertzen elkarlanerako aukera, baina ez 'dirua eman eta egin nahi duzuna' formularen, baizik eta pareko subjektu gisa hartuta.

U. Aierbe: Instituzio batzuekiko sentsazioa da euskalgintzaren isiltasuna erosi nahi dutela diruarekin, hau da, dirulaguntzen menpekotasuna tarteko "ez nazazu kritikatu". Euskalgintzak kritikatzeko jarraitzeko eskubide osoa du. EHEk behintzat, hala egiten jarraituko du, zalantzarik gabe, baina nahiko genuke bestelako elkarlan batean urrutiago joatea. ●

MARCOS
okindegia

Benetako antzinako ogia

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



aholku.koop
Fiskala Kontables Laborala

EKONOMIA SOZIAL ETA ERALDATZAILEAREN BIDEAN DOAZENEN AHOLKULARITZA

aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Zaintzen Euskal Sistema Publiko bat

Hiru hanka dira beharrezkoak zaintzen sistema publiko baterako: erakundeen inplikazioa, komunitate sareak aktibatzea eta lan-baldintza duinak. Azken arlo honetan urratsa eman du Maitelan kooperatiba integralak.

URKO APAOLAZA AVILA

Askotan esan dugu: pandemia honek zaintzak gure bizitzentzat duen garrantzia azalerazi du. Baina aldi berean, ekarri du berriz ere eremu pribatu eta merkantilistatik bideratzea, gehiengan emakume migratu eta arrazializatuak bizkar, egoera oso prekarioan.

Zaintza zentzu osoan hartu behar da, alderdi fisikotik zein emozionaletik. BDS Koop-ek argitaratzen duen *Laia* aldizkarian –Bidasoaldeko gure ARGIA jendeak jaso du astekariarekin batera– Mikel Valerok idatzi du gai horren inguruan: “Tamaina batean edo bestean eta elkar-menpekoak garen heinean, denok eduki beharko genuke zaintza lanak egiteko ardura”, dio.

Baina ardura hori lan-baldintza kas-karretan ari direnen gain uzten dugu gehienetan, ez soilik etxean, baita lantokietan eta eskoletan ere. Hor dira, adibidez, gurasook azpikontratatzan ditugun jangela zerbitzuak; langile begiraleek denbora asko daramate euren lana duintzeko borrokan.

BDS eraldaketa fabrikakoek garbi dute Zaintzen Euskal Sistema Publikoa sortu behar dela, “batetik zaintzarako eskubidea orokortuko duena, eta bestetik, zaintzaren sektorean diharduten langileen lan-baldintzak erregularizatu eta duinduko dituena”. Sistema publiko horrek hiru hanka lituzke, erakunde publikoek, komunitateak, eta zaintzaileen enpresa kooperatiboek oinarrituta.

Zaintzaren arloan urratsak ematen ari diren hainbat proiektu daude eta horietako baten esperientzia ezagutarazizuten *Beterri Saretuz* enpresa parte-hartzaileen programan: Maitelan kooperatibarena.

Proiektua aspaldikoa zen arren, 2020an eman diote forma, kooperatiba “integrala” izenpean: langileak (zaintzaileak), erabiltzaileak (zainduak) eta kolaboratzaileak (pertsonek, eragile eta erakunde

erantzuleak) hartzen ditu. Zaintzaren ardura kolektibizatzea da helburua eta 2021eko otsail amaieran aurkeztu dute ofizialki Hernanin.

Elisa Peredo Quiroz Maitelanekeo langile-bazkidea da: “Gure lanaren jabe izateko aukera bakarra hau zen”, azaldu du programako kideekin egindako elkarrizketan. “Proiektua sortu zen gure egoera prekarioa hobetzeko beharretik abiatuta. Hasieran ezkutuan aritzen ginen lanean, eta kontratu bat egiteko erregutu behar izaten genuen, baina denbora aurrera joan ahala berdin segitzen genuen, nahiz eta paperak eduki, prekarioan”.

Etxeetan zerbitzuak eskaintzen dituzten ohiko enpresetan gauza bera aurkitu dute: “Antolakuntza kaskarra da, askotan ez dizu denbora ematen etxe batetik bestera joateko, autobusa ez da iristen, estresa

handia da. Gainera, ez dugu baliabiderik zaintzen dugun pertsona

“Gure gorpuzak behartu eta lesionatzen ditugu, baina inork ez daki hori”

Elisa Peredo Quiroz
Zaintzailea

hori mugitzeko, gure gorpuzak behartu eta lesionatzen ditugu. Baina inork ez daki hori”. Egoera hori hobetzeko sortu da Maitelan, “erabakitzeke eta antolatzeko gaitasuna izateko”.

Baina horretarako bakarrik ez, baita euren erregina balioan jartzeko ere. “Ez da nahikoa jaten ematea edo

botikak ematea; behar dituzte beste gauza batzuk. Adibidez, ez gara jabetzen adineko batentzat zein garrantzitsua den ondo orrazturik egotea; ile-apaintzaile onak izaten ikasi behar dugu –dio Peredo–. Psikologikoki ere inteligenteak izan behar dugu: adinekoa bere gaitasunak galdu ahala asko zapuzten da, eta guk, gure hitz eta jarrerarekin lagundu behar diegu, galera hori hobeto eraman dezaten”.

Urrats garrantzitsua da Maitelan egiten ari dena. Hala ere, *Beterri Saretuz*-eko hitzartzeetan garbi geratu zen oraindik askoz gehiago egin behar dela zaintza duintzeko, balizko sistema publiko horrek beste bi hankak ere behar baititu: erakunde publikoen inplikazioa eta komunitate sareak aktibatzea. Hori egin ezean, jarraituko dugu egiturazkoa den beharrian horri adabakiek in erantzuten, eta merkatuaren edo enpresetako kontziliazio borondatearen menpe egoten. ●



Elisa Peredo Quiroz,
Maitelan kooperatibako
bazkide-langilea da.

Patinatzaileen eta gaixo kronikoen zaindari



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Schiedam (Holandako konterria, Germaniako Erromatar Inperio Santua), 1433ko apirilaren 14a. Lidwina izeneko emakumea, sendatzaileztat eta santutzat zutena, hil zen 53 urte zituela, eta berehala haren hilobia pelegri nazio gune bihurtu zen katolikoentzat. Leon XIII.a aita santuak 1890ean kanonizatu zuen ofizialki. Schiedam jaioterriko patroia izateaz gain, patinatzaileen eta gaixo kronikoen zaindari ere bada Lidwina katolikoentzat, eta apirilaren 14a da haren eguna.

1380ko apirilaren 18an jaio zen Lidwina, laborari familia baten baitan. 15 urterekin, izotzetan patinatzen ari zela erori zen eta saiheats bat hautsi zuen. Istripu hartatik ez zen sekula osatu eta, garaiko kronikarien arabera, paralisia gorputz osora zabaldu zitzaion, gorputz atalak erortzen zitzaizkion eta maiz odola zerion ahotik, sudurretik eta belarrietatik. Beti ere garaiko testigantzek diotenez, baraualdi luzeak egiten zituen, ez zuen sekula lorik egiten eta beste gaixoak sendatzeko gaitasuna zuen.

Horregatik lotzen dute katolikoek patinatzaileekin eta gaixo kronikoekin. Zientzialari komunitatearentzat, ordea, Lidwinak beste balio bat du. Garaiko testuek deskribatzen dituzten sintomak kontuan hartuta (paralisia, hortzetako mina, buruko mina, ikusmen arazoak, arintze garaiak...), badirudi ez zirela patinatzen izan zuen istripuaren ondorio



JOHANNES BRUGMAN

LIDWINA IZOTZETAN ERORITA, 1498KO BERE BIOGRAFIA BATEKO IRUDIAN.

zuzenak izan, esklerosi anizkoitzaren ondorio baizik. Testigantzak tentuz aztertutako behar dira, Lidwinaren santutasuna baieztatzea helburu izanik, esajeraziorako joera nabarmena baitute, eta horrek historialarien eta patologoen

lana zailtzen du. Baina diagnostikoa posibletzat jotzen dute eta, hala, horixe litzateke, sinesgabeentzat behintzat, Lidwinaren "mirari" nagusia: esklerosi anizkoitzaren deskribapenik zaharrena izatea. ●



MALLORCAKO MUSEOA

Palmako aireportuak suntsitu zuena

XX. mende hasieran Palma Mallorcakoan historiaurreko zeremonia gune ikusgarria zegoen: Son Oms. 100 eraikin eta egitura inguru zituen: santutegi bat, hiru *talayot*, 25 metroko tumulu bat, nekropoli bat, labirinto bat... 1960ko hamarkadan dozena bat egitura besterik ez ziren geratzen eta 1971n suntsitu zuten azken arrastoa, 1963an monumentu

nazional izendatu arren. Mallorca turismo gune garrantzitsua bihurtzen ari zen eta aztarnategiaren eremuan Son Sant Joan aireportua eraikitzeari eman zioten lehentasuna. Hondamendiaren 50. urteurrenean, UNEDeko Domingo C. Hernandez Jimenez historialariak gertatutakoa ekarri du gogora *Artyhum* aldizkarian argitaratutako artikulu batean. ●

Kudeaketa indibidualetik kolektibora pasa eta proiektu bizigarriago bat irabazi

ARGIA ETA OLATUKOOP ELKARLANEAN

Eguno Farapin ez dago proiektua sortu zuen bazkide sortzailerik, baina herentziaz jaso zuten "kudeatzaile bat buru zuen lidergo indibiduala". Jatorrizko Farapiko sortzaileek beti izan zuten beste eredu baten nahia baina momentuan ez zuten bestelako kudeaketa formularik ezagutzen eta ondorioz, inertziaz, eredu tradizionalaren arabera antolatu ziren. Kudeatzaile batek Farapi uzten zuenean, ohituraz, langileen artean beterranoenari tokatzen zitzaion kargu hori hartzea. Azken kudeatzaileak kargua hartu zuenean iragarri zuen bera lau urtez egongo zela funtzio horretan. "Hirugarren urtean, pentsatzen hasi ginen hori ez zela guretzat nahi genuen eredu".

KONTRAESANAK AZALERATZEA, ERALDAKETARAKO MOTOR

"Garai hartan Olatukoop sarean sartu ginen, eta konturatu ginen garatzen ari ginen ekonomia sozial eraldatzaileen eta gure ikuspuntu ekofeministan kontraesan asko sortzen zizkigula gure antolaketa". Era berean, Farapi erakunde batean aholkularitza zerbitzua eskaintzen ari zen eta azaldu dutenez, "hango egoerak ispilu lana egin zigun. Barrura begira bagenekien zer arazo genuen pertsona bakarrek lidergoarekin, baina kanpotik beste proiektu batean ikusi genuenean islatuta gaia, nabarmenagoa egin zitzaigun".

Horrela, duela bi urte eta erdi egitura "hankaz gora" jartzea erabaki zuten. "Baloratzen genuen lantalde egonkorra eta oso inplikaturik genuela, nahiz eta kooperatibista gutxi izan. Bi prozesuak aldi berean egitea erabaki genuen: kooperatibista izateko gonbitea zabaltzea langile guztiei eta hankaz gora jartzea kudeaketa eredu".

BIDEA

Langile guztien artean planteatu zuten hausnarketa, oso era zabalean: "Nola uste genuen antolatu behar ginela, zein talde mota izan nahi genuen, zer gauza genituen erabakitzeke, eta gauza bakoi-



tzari zer garrantzia ematen genion...". Prozesua "kudeatzailearen irudia fusi-latuz" hasi zuten, kudeatzaileak gabe, eta urtebeteren ondoren pertsona bakarrek gerentziatik talde kudeaketara iraganak ziren.

Lehenik, asteburu-pasa bat egin zuten elkarrekin. "Bi pertsonak hartu zuten ardura prozesu guztia diseinatzeko, metodologia parte-hartzailea izan zedin... Farapiren egituraz hitz egiteaz gain, asko hitz egin genuen talde kohe-sioaz, lantaldeaz". Emozionalki ere aste-buru indartsua izan zen eta jardunaldi trinko horretan jarri zuten oinarria: lan ildoak zehaztu zituzten eta lantaldetan oinarritutako egitura eraikitzen hasi ziren. Modu honetan, Farapi osatzen zuten kide guztiak antolakuntzako egituraren parte bihurtu ziren.

Oinarri horretatik abiatuta, hamabost egunean behin atal zehatzak fintzen joan ziren. Erabakiguneak adostu eta mar-txan jarri zituzten; aritu ahala konturatu ziren koordinazio gune baten premia bazutela eta hala egin zuten. Geroztik, etengabe doaz egitura berria fintzen: "Argi dugu egitura sortzen dugun hei-nean deseraikitzen ere joango garela. Gakoa da malgutasunetik eraikitzea, ez da ezer gertatzen planteatu dugun zer-baitek hemendik bi hilabetera funtzio-natzen ez badu, denetik ikasten da".

Oraingo kudeaketa eredu, lantal-de eta lan ildo bakoitzak metodologia parte-hartzaileekin egiten du lan, eta saiatzen dira lantaldeen erabakietan gainerako langileen ikuspegia txertatzen.

Farapin talde bat izatearen babesa sentitzen dute: "Egiten dugunarekin konprometitu dagoen talde bat gara eta batera goaz. Ez da erabaki pertsona-la, ez gaude pertsona baten esku. Horrek karga asko arintzen du, garai ilun haue-tan ohera lasai joan ahal izateko". ●



FARAPI KOOPERATIBA
farapi.com

Zer egiten du: Dizi-plina anitzetako ezagutza eta begiradetan oinarritzen da gure lana; Antropologia, Feminismoa, Partaidetzako prozesuak eta Ekonomia.

Langile edo bazkideak: 10.

Egoitza: Donostia.

Harremanetarako:
info@farapi.com

LAN MOLDEAK PANDEMIA



DANI BLANCO

Etxea lantoki baino, lantokia etxe

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Azken urtean joan gara kontatzen ARGIA nola ari zaion aurre egiten pandemiak eragindako lurrikarari: zein neurri hartu diren une bakoitzean eta zergatik. Eta konfinamendu total hartatik urtebetera nola ote dago etxeko antolaketa?

Foro moduko bat egin berri dute ARGIAko langile guztien artean, koronabirusaz hitz egiteko; norberaren, taldearen eta proiektuaren egoera aztertzeke, eta gaia nola enfokatu denen artean erabakitzeke. Horrelakoak dira ARGIA. Denen hitza kontutan hartu behar dela sinesten duten horietakoak. Errazagoa ez al da ba, goitik dagoenak agindu eta behekoek obeditzea? Behekoek protesta egiten dute erabaki batzuegatik, baina beraiek ere erosoago, seguru, janaria murtzikatuta emanda. ARGIAkoak dira pixka bat... nola esan... ni ez naiz antide-mokratikoa, baina ARGIAkoek demokrazia gehiegi ez al dute konplikatzeko?

Total, talde guztiak izan du hitz egiteko aukera, talde txikietan, gero handian, eta pandemiak lan moldeetan izan duen eragina aipatutako hiru esparruetatik landu dute: maila pertsonaletik, talde bezala eta ARGIA proiektuari erreparatuz.

Itxialdia amaitu zenean, langile bakoitzaren esku geratu zen etxetik edo

lantokitik aritzeko aukera eta segurtasun-neurri bezala, langile batzuek asteen hainbat egunetan etxetik lan egiteko hautua hartu zuten. Epe luzera honen eraginez taldean hitz beharra ikusi da, ARGIA egiten dena orokorrean ez baita lan mekaniko bat. Sormena dute tresna eta ez da berria lau begik bik baino gehiago ikusten dutela. Taldea beharrezkoa dute, eta ez telelan bidezko taldea. Eskuz eskuko ekipoa da, asko hitz egiten duena. Horregatik guztiagatik, lan presentziala indartzea erabaki da foro honetan, pandemiaren aurretik langileek zuten malgutasuna errespetatuz, noski. Segurtasun berme handia da ARGIA lan duina dutela: arriskurik txikiena ikusten duenak, konfiantza osoz esaten die kideei badaezpada etxean geratuko dela; eta moldatzen dira. Hori da segurtasun-neurririk indartsuena orain-txe, jakitea inor ez dela erdi gaixorik lantokira joango, besteak arriskuan jarritz, joaten ez bada gerta daitekeenaren beldur.

Txarrari ona atera eta foroa baliatu dute hitz egiteko, ekipoa sendotzeko eta elkar hobeto ezagutzeko. Oso ondo baloratu da langileen artean espazio hau sortzea eta beste gai batzuetan ere erabiliko duten tresna izango da. ●

AGENDA

UEUk antolatutako Natur Zientzien IV. Topaketa apirilaren 17an eta 18an izango da, Donostiako Eureka! Zientzia Museoa. Honen baitan, mahai-inguru hau egingo da apirilaren 17an, 16:00etatik 18:00etara:

OROKORRETIK TOKIKORA:

INGURUMEN ARAZOAK KOMUNIKABIDEETAN

Izaro Gorostidi Bidaurrezaga (UPV/EHU)
Aitziber Agirre Ruiz de Arkaute (Elhuyar)
Jenofa Berhokoirigoin Hirigarai (ARGIA)
Alex Fernández Muerza (UPV/EHU)

Olatukoop sareak, Kooperatibak
Denontzat proiektuaren baitan formazio zikloa antolatu du. Izena emateko, helbide honetara idatzi behar da:

koopdenontzat@olatukoop.eus

Hiru hitzaldiak Erretereria-Oreretako Merkatzar-en izango dira,
10:00etatik 13:30etara:

EKONOMIA FEMINISTA KOMUNITARIOA

Apirilak 16.

INTERKULTURALITATE KRITIKO DEKOLONIALA

Apirilak 30.

EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEA ETA KOOPERATIBISMOA

Maiatzak 14.

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



"Oinarrian, kalitatezko prentsa urriaren parte zaretelako. Eta gainera euskaraz. Zer gehiago eska liteke?"

Azpeitiko Gaizka

ARRAK NAGUSI: SEXISMO BOTANIKOAK ITOKO GAITU



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Doministikuen eta negarrezko begi malkotuen festa iritsi da. Udaberriak usaina badu, kolore ikusgarriak ere bai, baina gure zentzumenetatik ezkutuan alergia zakarrenak piztuko ditu. Udaberria loraldia da. Eguna gaua baino luzeagoa den seihilekoa hasi besterik ez da egin, eta gure inguruko landare gehienek sasoi hau baliatuko dute loratu eta fruitua eta hazia ontzeko.

Loreetan bi sexuak ditugu. Landare batzuek bi sexuak beregan dituzte, hermafroditak dira; gehienak molde honetakoak dira. Gutxi batzuk sexuz banatuta daude; adibidez haginak (*Taxus baccata*) eta kiwia (*Actinidia deliciosa*): hagin eta kiwi arrak eta hagin eta kiwi emeak dau-de. Bi sexuen arteko ernalketa gauzatu beharra dago baldin eta fruitua eta hazia eman nahi baditu. Ernalketa gauzatzeko, polen arrak lorearen atal emearengana iritsi behar du. Polinizazio hori moldatzeko eran ere landare gehienak bi multzo handitan banatu ditzakegu. Ezagunena ernalketarako intsektuak erabiltzen dituzten landareena da: erleak, kakalardoak, euliak... Landare horiek lore ikusgarri eta usaintsuak zabalduko dituzte, intsektu bitartekariak erakartzeko. Besteek ez dute intsektuen beharrik, haizearen zain egongo dira. Kolore eta usain ederretan energiarik xahutu beharrik gabe, duten guztia ahalik eta



Hagin arra polena hedatzeko
loreak irekita.

polen gehien ekoiztera bideratuko dute.

Ernalketaren ondorioz, lore emeak fruitua emango du, bera bezalako landare berriak sortuko dituzten hazien babes eta garraiolar. Fruitua beti da amaren fruitu edo emaitza gorena. Guretzat fruitu asko onak dira: sagarra (*Malus domestica*), mahatsa (*Vitis vinifera*), piperra (*Capsicum annuum*) eta abar. Beste zenbait txarrak, adibidez patatarena (*Solanum tuberosum*). Eta beste batzuei

bere egoera edo bizi baldintzen arabera irizten diegu.

Gure uste horrek ezin eraman ugari sortzen digu. Adibidez, Txinako udareondoa (*Pyrus calleryana* "Chanticleer") ikaragarri ugalduta da hirietako espaloietan. Loraldi ikusgarria du, zuri-zuria, arbola betean. Baina udareondoa da eta txikiak edo handiak fruituak ematen ditu. Gure herrian bere azpian kotxeak aparkatzen dira eta aletxoek, heldutakoan edo txorien mokokadekin erortzen direnean, auto distiratsuek zikintzen dituzte. Ondorioz, urtero loraldia zapuzteko eta fruiturik ez emateko tratatu egin behar...

Ginkgo (*Ginkgo biloba*) ederrak ere badu bere galbidea. Dioikoa da, hau da, zuhaitz arrak eta zuhaitz emeak dau-de. Emeak ematen duen fruituak heldutakoan duen kiratsa ikaragarria da, kaka-usain garbia du, jasanezina. Eta zuhaitz arrak soilik jartzen dira.

Arrak nagusi. Honek ere ipurdian zuloa. Arrek polena erruz sortu eta hedatzen dute, eta lehenaz gain ingurune kutsatuak diren hirietan polenaren alergiak gero eta indar handiagoa hartzen du. Landa inguru irekietan pinuarekin edo belardietako belarrekin gertatzen den polenaren emana eramangarriagoa izan daiteke. Hirietan itogarria. Sexismo botanikoak itoko ote gaitu? ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus

📍 Xoko Urdazubitik

Nire galdera da: huntz edo xirari nahi nioke lurra aldatu, noiz izanen zen egun egokia? Senarrak erraten du ilbeheran egin behar direla...

Orain oso garai hona da lan honetarako. Sustrai berriak ematen hasita daude eta lur berria badute

alde ederreko kemenarekin haziko dira. Hala ere aurreko hilabeteetan, martxoan eginez gero hobe. Giroak agintzen du. Hurrengo urteetan gogoan izan. Giroa epeltzen bada, martxoan egin.

Ilbeheran hobe, zalantzarik gabe. ●

📍 Joseba

Nola banatu beharko litzake karea sagastian? Granulatua edo hautsa hobe? Hautsak berehala egingo du lana, baina joan ere hala egingo da. Hori hobe da baratzean edo soroan erabiltzeko. Koxkorak mantsoago baina luzez egingo du lan. Sagastian zalantzarik gabe koxkorra hobe da. ●

HABELARTE

NAFARROAKO MENDIALDEKO BASERRITAR AGROEKOLOGIKOEN ELKARTEA JAIO DA



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Bi urteko prozesu luzearen ondoren, martxoaren 28an egin zuten Nafarroako mendialdeko baserriar agroekologikoen elkartearen batzar eratzailea Aralarko Done Mikel Santutegian. Habelarte du izena talde jaio berriak, eta hamar udalerritako baserritarrak deitu dira bertan parte hartzera: Leitzza, Areso, Goizueta, Arano, Lekunberri, Larraun, Araitz-Betelu, Basaburua, Imotz eta Atezkoak. Lehen sektoreak eta baserriar txikiek egunerokoan dituzten arazoei elkartuta eta sare-ta erantzutea dute asmo, eta elikadura burujabetzaren eta iraunkortasunaren bidean kokatzen dute haien jarduna.

BIDE LUZE ETA KONPLEXUA

Leitzako eta Aresoko baserriarrendandik abiatu zen duela hiru urte elkarte sortzeko ekimena, baina eskualde zabalgoko ekoizleak biltzea egokiago iruditu zitzaion. “Hasierako ideia Leitzza eta Areso mailako zerbait egitea bazen ere, erabaki zen ekimena mendialde osora zabaltzea, besteak beste, zonalde osoan eredu horretan ari diren edo ari nahi duten baserritarrak antolatzen hasteko beharra ikusten zelako”, diote zabaldu-tako prentsa oharrean. Baserritarrak beraiek izan dira elkarte sortzeko pro-



zesuan buru-belarri aritu direnak, baina Cedernaren Garalur Landa Garapenerako elkartearen laguntza eta babesa ere jaso dute ibilbide osoan.

Mendialdeko eskualde zabala anitza da orografiari eta toki bakoitzean nagusi den ekoizpen ereduari begira. Desberdintasunak kudeatzeak eta puntu komunak bilatzeak bere lana eta denbora eskatu duela azaldu du Cedernako elikadura eta dinamizazio teknikaria den Amair Unzuetak: “Leitzako eta Aresoko baserriarrek idatzitako zirriborroa zabaltzeko eta gainontzeko udalerrietako baserriarren ekarpenak jasotzeko saioak egin genituen hasieran, eta gero eskualde osoko bilkurekin jarraitu genuen prozesua”. Desberdintasunak desberdintasun eta zailtasunak zailtasun, lortu dute azkenean elkartearen oina-

rriak, helburuak eta filosofia denen artean adostea.

SOLUZIO KOLEKTIBOAK LANTZEKO

“Tokiko errealitatea desberdina izanagatik, beharrak guztiontzat berdinak direla konturatzeko balio izan digu bi urte hauetako lanek”, diote prentsa oharrean. Behar horiei kolektiboki erantzuteko sortu dute Habelarte, eta horrela definitu dute taldearen helburu na-

gusia: “Nekazaritza iraunkorra bultzatzea, eredu estentsiboan eta agroekologian oinarritutako praktikak sustatuz eta prozesu eraldatzaile bezala ulertuta. Eredu hau landuz, gure etxaldeen errentagarritasun ekonomikoa ez ezik, oreka soziala eta ekologikoa ere lortu nahi ditugu”.

Ekoizpen arloan, eraldaketa prozesuan, komertzializazioan, promozioan eta kontsumitzaileekiko eta administrazioarekiko harremanetan eragitea du asmo elkarte jaio berriak, eta haien irizpideetan oinarritutako marka sortzea dute aurrera begirako lan ildoetako bat. Momentuz, baserritarrak elkartera batzeko lanean ari dira; horretarako, konpromiso karta eratu dute, taldera batzen direnek oinarriekin bat egiten dutela bermatzeko. ●



Zure osasuna zaintzeko garaia da. Bertokoa eta ekologikoa kontsumitzeko garaia da.





Euskadiko Elikagai Ekologikoak
Alimentos Ecológicos de Euskadi

AMSIA

“MAKINEN MUGAK BILATU NAHI DITUT”

Inguruotako elektronika giroan ibilbide luzeenetakoa duen artista da Amsia. Hogei urtetik gora daramatza klase guztietako hardware, sampler, sintetizadore eta ordenagailuz inguratuta, soinu bidaiak izan nahi duten kantuak ekoizten. Ez du oso gustuko palestrara ateratzea, baina *Kukuherr*i disko berriaren aitzakian mintzatzeko gonbita onartu eta bere etxean hartu gaitu. Tea eta intxaurrak prest, bere ibilbideaz hizketan hasi eta konturatzerako aipatu ditu 90eko eszena, *mainstream*-a eta *underground*-a, edota egungo musika merkatuaren keriak.

 KEPA MATXAIN  AMSIA

Musikan lehen pausoak bateria jotzaile gisa eman bazituen ere, betidanik erakarri dute makinek Javier Ucar ‘Amsia’ (Azkoitia, 1976). Aitak zaletuta inguratu zen ordenagailu mundura, bideo-jokoekin hasieran, musikarekin geroago. Ordutik, teknologia informatikoaren bilakaera bertatik bertara ezagutu du, eta

bidean geratu diren makina zaharkituekin jarraitzen du kantu berriak sortzen. Bateria ahaztuxea izanagatik, oraindik perkusiotik abiatzen da kantuak egiterakoan. “Musikan pentsatzean perkusioan pentsatzen dut, melodian baino askoz ere gehiago”. *Kukuherr*i disko berrian –Series Negras eta Zona Watusa diskoetxeek kaleratua, biniloan eta kasetean, hurrenez hurren– azken urteetan egindako lanak bildu ditu. “Onena da ez dagoela pandemia garaiko ezer, dena da askoz aurretikoa. Argitaratzea kostatu ohi zait, ordea”. Behin zerbait kaleratzen hasita, selektiboa izan da: sarean zintzilikatu beharrean, posta bidez egin du promozioa, entzule aproposak izan daitezkeenei zuzenean bidaliz. “Entzuleari produktuari baino garrantzia handiagoa emateko modu bat da. Azken batean, lan sentsiblea da, eta mimo pixka bat behar du”.

Nolakoa zen inguruotako musika eszena zu hasi zinen garaian?

Belaunaldi aldaketa bat ari zen gertatzen. RRVaren [Rock Radical Vasco] itzalak hor zirauen, baina gainbehera moduko bat suma zitekeen. Justu orduan hasi zen Arto Artian proiektua. Nik Matadeixen kontzerturen bat emana nuen ordurako. Garai hartan, 713avo Amor-eko Carlos Desastre etorri zen hona bizitzera, eta behin esan zidan: zatoz gurekin biran. Izen bat behar nuen kartelean jartzeko. Orduan, lokalean zegoen marrazki baten harira, Amsia otu zitzaion –kotxe marka bat da, eta panpina japoniar bat–.

Haiekin ibili nintzen biran Malagan, Valentzian, Bartzelonan, Zaragozan, eta inguruotan ere bai. Gertatzen da hemen beti izan dela zail samarra kontzertuak ematea. Bazegoen gaztetxeetako eszena, baina musikaren ikuspegi aldarrikatzailer eta borrokalaria nagusitzen zen, eta hor sartzen ez ginenok eszena horretatik kanpo geratzen ginen. Kontzertu batzuk eman nituen, noski, baina programazio irizpide orokorra beste bat zen.

Carlos Desastrekin lau urtez kolaboratu ondoren, bakarrik ekin zenion.

Bai, 2003an jaialdiz jaialdi hasi nintzen, bakarka: Sonar, Confluencias, Elektronikaldia, MEM, Ertz... Harrigarria den arren, konturatzen naiz garai hartako ekipoaren antzekoa erabiltzen dudala oraindik ere. Orduko ordenagailuek ez zeukaten egungoen indarrik, eta hardwareak erabiltzen ziren musika ekoizteko. Egun, aldiz, soinu prozesu gehienak ordenagailu bidez egiten dira. Hardware haiek erabat debalututa daude, baina nik horiexek bilatzen ditut. Belaunaldi kontua ere izan daiteke. Badago hor zerbait, funtzionamenduan, lan egiteko moduan, sortzen duten soinuan, asko interesatzen zaidana.

Zer, zehazki?

Makinen mugak bilatu nahi ditut. Sortzeko hardwarea erabiltzen duzunean, dituen aukera eta mugak esperimentatzen hasten zara. Esaterako, sistemak sortu ditut ikusteko ea zenbat nota



sta tierra



onartu ditzakeen makina batek. Iristen da une bat nota gehiago onartzen ez di- tuena, eta orduan gauza arraroak egiten hasten da, ez dagoelako horretarako di- seinatuta. Momentu horretan hasten da niretzat soinuaren izaera interesa edu- kitzen. Askotan proba horiek ez dute balio musikalik, baina sortze prozesuaren parte dira. Disko berrian soinua lantze- ko modua aldatu egin dut. Musika elek- tronikoan gabiltzanok normalean soi- nu sintetikoaren bila ibiltzen gara, baina oraingoan instrumentu klasikoaren sam- plerrak izan nahi duten soinuak sartu ditut, erabat zaharkituta geratu direnak. Entzutuen duzu tronpeta, eta esaten duzu: “Hori ez da tronpeta bat”. Hori bilatu dut: bigarren bizitza bat ematea tron- peta soinurik ez duen tronpeta horri.

Sintetizadoreekin esperimentatzetik abiatu dituzu kantuak.

Bartzelonako Befaco enpresan sintetiza- dore modularrak diseinatzeko eta eraiki- tzen igaro ditut azken lau urteak. Froga asko egin behar dira lan horretan, eta testatze horiek guztiak musikara era- man ditut. Disko berrian konposizioa ez da sortze prozesuaren oinarria izan. “Gisa honetako edo besteko kantu bat egiten hasiko naiz”... ez. Gehiago izan

da: “Makina hauek testatuko ditut, eta hor sortzen diren sistema txiki auto- nomoetan esperimentatuko dut”. Zen- tzu horretan, musikariek baino gehiago eragin didate zenbait sintetizadore egi- lek –Doepfer, Mutable Instruments edo DIY (Do it yourself) eszenak, kasurako–, haiek sortutako makinetatik garatu du- dalako soinua. Behin soinua lortutakoan, muntaiaira igarotzen naiz. Pieza monta- tzen dut, piezak berak iradokitzen di- dan bideari jarraituz. Aurreko diskoetan abesti egiturako pieza gehiago daude. Oraingoan, berriz, azken urteotako lan -moldetik geratu dena bildu dut.

Nahiko prozesu arrazionala ematen du.

Bai, soinuaren muntaia prozesua arra- zionala –edo nahi baduzu tekniko– da. Dena den, emaitza musikalak abstrak- ziora garamatza, eta hori da gainera bi- latzen dudana. Horregatik ez naiz ondo ezkontzen “esperimental” etiketare- kin. Musika esperimental egingo nuke emaitza aurreikusi ezingo banu. Nire diskoak eman dezake oso kaotikoa, bai- na norabide garbia dauka, badakit nora jo nahi dudana. Bidaia bat bezala uler- tzen dut, bere hari narratibo eta guzti, bidean aniztasuna biltzen duena. Beraz,

bai, prozesua sintetizadoreekin eginda- ko forma esperimentaletatik abiatzen da, baina behin forma ematen hasten naizenean esperimental izateari uzten dio. Gertatzen da, ordea, “esperimen- tala” etiketa erraza bihurtu dela, patro- i batzuen barruan kabitzen ez den musika guztia katalogatzeko balio duena.

“Arrakasta

[ekitaldi handiekin]
identifikatzea ez dut
konpartitzen. Ni beste
zerbaiten bila nabil”

Nola deituko zenioke egiten duzunari?

Soinu collagea egiten dut, nahi gabe lo- tura daukana 60ko hamarkadan egiten zen *musique concrète* delakoarekin, or- duko artista haiek makinak erabiltzeko aukerak nola ikusten zituzten errepara- tuz gero. Soinu makinen iraultza handia grabagailu-erreproduzitzailerak izan da.

Oso asmakizun modernoa da. Joan den mende hasierara arte, musika entzuteko modu bakarra zen norbaitek instrumenturen bat jotzea. Gramofonoak asmatzearekin bat musika erreproduzigarri bihurtzen da, kapsulatu egin daiteke estreinakoz. Hori sekulako aurrerapena da abangoardiako musikarientzat, hortik abiatuta teknika mota desberdinak sortzen direlako: azeleratzea, frenatzea, moztea, itsastea... gaur egungo sampler gehienak teknika horietan oinarritzen dira. Eta egon zen musikari korronte bat teknika horietan arakatu zuena: Pierre Schaeffer, Bernard Parmegiani, Tod Dockstader... Musikari horiek egiten zutena gertukoa sentitzen dut. Nire sortze prozesua aldatu dut, baina soinu aldeetik lehen diskoaren tankerakoa da kasik hogeit urte geroago. Musikan hainbeste denbora daramazunean, zailena izaten da motibatzen zaituen soinua topatzea. Ildo bat definitzen duzu, eta ohartzera-ko agortzen zaizu. Orduan, birpentsatu behar duzu dena, bide beretik segitzeko gauza berbera egin gabe. Zeren sorkuntzan ez aurrera ez atzera gelditzea putzu batera erortzea da. Berdin du zein arte diziplitatan.

Askotan gertatu zaizu?

Etengabe. Oraintxe bertan, adibidez, sentitzen dut agortzen ari naizela orain arteko bidea. Trabatu sentsazio horretatik ez zara ateratzen ez bada lanean jarraituz. Beste hark zioen moduan, inspirazioak lanean harrapa nazala. Laguntzen dit une horiek gainditzen, esaterako, makina berri bat erosteak –bigarren eskuko bat, merkea–; edo makinaren baten manuala irakurtzeak –gehienetan ez baititut irakurtzen–; edo musika entzuteak. Bakarrik lan egitera ohituta zaudenean, on egiten du beste jende batekin lan egiteak ere. Norbera proiektu osoa izan beharrean, proiektu zabalago bateko parte soilik izatea. Aritu naiz, adibidez, antzerkian Berta Tarragó-ren *Porcopolis* proiektuan, Juan Navarro eta Pablo Gisbertekin; edo Izibene Oñederraren animazioetan soinua egin izan dut; edo Ander Agudo (Rayo-60) musikariarekin elkarlanean egin nuen *Cúmolo bala* diskoa. *Kukuherrin* ere Tomomi Kubok lagundu dit *Shinjuku* piezan. Japoniar bartzelonartua da eta Ondes Martenot izeneko instrumentu berezia jotzen du. Tokioko auzo batetik dator piezaren izenburua. Tomomiren laguntzaz, iruditzen zait ondo jaso dudala han izandakoan barneratutako “auzoaren espiritua”.

Nonbait irakurri dut, zure garaiko mediokritatetik ihesi dabilen artista zarela. Hala sentitzen duzu?

[Barrez] Ez dakit nork idatziko zuen hori. Baina ezin naiz ase beti formula bera errepikatuz. Musikatik gutxien interesatzen zaidana horixe da. Musika taldeak ikusten ditut arrakastaren bila, egindako lanaren ordaina hori balitz bezala. Baina arrakasta, egiaz, hain da erlatiboa... 40 disko saltzea arrakasta da? Eroslearen arabera, agian sekulakoa. Baina apustua gogor egin duen edonorentzat 40 disko saltzea bizitzako porrota da. Musika utziko lukete.

Garaiaren sintoma ere bada. Dena zifretan neurtzen dela ematen du,

baita kultura ere.

Ulertzen dut horrek ere egon behar duela, denak ezin duela oinarritu hogeit lagun mugitzen dituzten artistengan. Baina musika *mainstream*-a ez dut nire bezala bizi, interes batzuek mugitzen duten industria baten produktu gisa baizik. Hor daude ekoiztetxe batzuk, eta lan egin behar duen jende asko, eta jende horrek guztiak behar ditu musikari izar horiek, entzule asko erakar ditzaten, eta era horretara makinaria osoa mugitu dadin. Ekitaldi handiek segi behar dute, asko bizi dira hortik. Ni ere izan naiz soinu teknikaria. Baina arrakasta horrekin identifikatzea ez dut konpartitzen. Ni beste zerbaiten bila nabil. ●





LIBURUA

Kanpoko eta barruko gerrak



ZARTATUA / 4.48 PSIKOSIA

EGILEA: SARAH KANE
ITZULTZAILEA: ARANTZAZU FERNANDEZ

GANBILA, 2020

AMAIA ALVAREZ URIA

Ganbila bildumako 8. zenbakiak itzulpena dakar lehen aldiz, antzerki garaikide ingelesaren XX. mende amaierako ikur nagusietako baten lehen eta azken antzezlanena: Sarah Kaneren *Zartatua* (*Blasted*) eta *4.48 Psikosia* (*4.48 psychosis*), bere idazkeraren bilakaera erakusten dutenak.

Arantzazu Fernandezek itzuli ditu teatro postdramatikoaren eta “*In yerface*” mugimenduaren lan erreferentzialak direnak. Egileak antzerkiaren arauak urratu zituen; krudeltasuna azalera ekarri zuen publikoa astintzeko asmoz eta kotarik gabe idatzi zuen, besteak beste. Antzerki esperimentala, apurtzailea, asaldagarria sortu eta taularatu zuen.

Arteak oro har eta antzerkiak zehazki ikus-entzuleak –edo irakurleak– “mugiaraztea” dute helburu. Hori


lortzearen ondorioz kritikak eskandalutzat jo zituen bere lan batzuk, ia haien zentsura eskatzeraino. Urteekin ordea, talentu handiko sortzailea izan zela idatzi zuten.

Goragalea sentitu dut lehen antzezlanarekin. Hotel bateko gela batean ditugu pertsonaiak, bata bestea zapalduz eta bizirik jarraitzeko borrokan. Bihotza estutu zait bigarren antzezlanarekin. Buruko gaitza duen protagonistak bere gain-behera kontatzen digu, bakarrik zein terapeutarekin. 4:48ak dira egilearen arabera, suizidio gehien dagoen eguneko unea, orduan amaitzen baita deprezioaren kontrako botikaren eragina eta gaixoa esnatu egiten da.

Bi lanetan agertzen dira leherketa eta haustura. Bietan daude oso presente sexua, boterea, beldurra, bakardadea,

zapalketa, maitasuna, mina, haserrea, zoramena, tristura, heriotza. Basakeria eta poesia elkarrekin gurutzatzen dira. 24 urte zituenean idatzi eta taularatu zen lehena 1995ean, 28 urterekin idatzi eta hurrengo urtean, bere buruaz beste egin ostean, taularatu zen bigarrena 2000. urtean.

Gerra eta biziraupena dira ardatz nagusiak eta hori irudikatzen duen biolentzia mota ugari agertzen zaizkigu begien parean. Lehen lanean mundu postapokaliptiko bat dugu; kanpoan gertatzen ari den gerra hoteleko gelaraino sartzen da. Bigarrenean protagonistak bere baitan bizi duen gatazka lazgarriaren txatalak jasotzen ditugu nahasian, zorrotz. Dystopia eta testigantza. Leher egin eta lurra jo. Gordin eta garratz. Gu anestesiatik esnatu nahian. ●



MUSIKA

Musikari esker mugak gainditzen



Argazkian Holy Nuns taldea ageri da, bilduman parte hartu duen taldeetako bat.

IKER BARANDIARAN

Basket Beats Borders ekimena ulertzeko Libanon dagoen The Shatila errefuxiatuen kanpalekuan kokatu behar gara. Han bizi dira Israelgo Estatua-ren indarkeriatik eta krudelkeriatik ihes egindako 25.000 palestinar eta horien artean da saskibaloia taldea osatu zuten 16 eta 20 urte arteko neska taldea. Italian eta Euskal Herrian sortutako elkartasun sare bati esker, 2017an Libanotik kanpo bidaiatu, Europako bi herrialde horietako beste neska talde batzuen aurka jokatu, kanpalekutik kanpoko beste esperientzia batzuk bizi, eta palestinarrek bizi duten egoera latzaren berri eman zuten.

Orain errefuxiatuen kanpalekutik berriro irteteko saiakera egin nahi dute. Asmoa da saskibaloia jokalaria Italiara,

Euskal Herrira eta Espainiara jokatzera eramatea. Finantzatu ahal izateko Euskal Herriko eta Espainiako 53 musika taldek kanta bana eman dute; entzungai dau-de CD bikoitz batean, bandcamp-en eta Spotify-n.

Bilduman aurkitu ahal ditugun taldeetatik hamazazpi Euskal Herrikoak dira eta oso anitzak: Sangre de Monoren raggamuffina, Penadas Por La Leyren punk-rocka, Fermin Muguruza eta The Suicide of Western Culture-ren elektro-industrialia, Estricallaren hardcore-punka, Arrotzaken punk iluna, Peedohren hardcore-crusta, Corduraren post-hardcorea, Braulioren rock eskizoa, Panikoren crusta, Ethosen punka, Puto Bastardo Palestinaren hardcore-punka,



BASKET BEATS BORDERS

ASKOREN ARTEAN

AUTOEKOIZPENA

Cult Of Miseryren UK82 metal-hardcorea, La Furiaren rapa, Soma Culten indiea, Holy Nunsen new wave punk-rocka, Rat-Zingerren punk metaleroa eta Fat Lychee & Akerbeatzen hip-hop.

Horiez guztiez gain, badira beste asko eta ahalegin sutsua eginez gero saskibaloia jokalariek eta herrien arteko borrokek mugak gainditzeko dituzten bezalaxe, musika estilo eta ibilbide oso desberdineko taldeak aurki ditzakegu: Rozalen, Txarango, Tremenda Jauria, Mafalda, Desakato, Manolo Kabezabolo eta beste asko.

Dagoeneko CD fisikoa (bikoitza) Euskal Herriko taberna eta elkartasuneko salmenta puntu askotan aurkitu dezakezu 8 eurotan. ●



Angel Unzu elektriko eta errepikaezin

 XALBA RAMIREZ

Aurkeztu beharko genuke Angel Unzu gitarrista? Unzu da euskal eszenan dagoen gitarra-jotzaile onenetako bat –onena dela zalantzarik gabe esateak kritika kulturalaren objektibizazio ariketa epistemiko bat ekarriko luke, eta onartzen dut nagi pixka bat ematen didatela zirkua diruditen eztabaidek-. Jazzean formatua eta folk munduan eskarmentuduna, birtuoso eta originala da bere ibilbidea, 13 *Solos*, *Duos* edo *Tiempos de búsqueda* lan aipagarriekin eta ehunka euskal ekoizpen eta kolaborazioekin.

Lezoko areto xume batean aritu da laukotea. Ia beteta zegoen aretoa –erdi beteta, badakizue-. Jazz zaleak eta musika eskolako ikasleek eta ikasle ohiek osatutako publikoaren aurrean natural

eta barregarri aritu dira: “Argiekin ez dut bereizten zenbat lagun zaudeten, 30 edo 3.000”. Tamalez ohituago baitaude 30 lagunen aurrean aritzera.

Unzuren izena darama proiektuak, baina alboan ditu Andrzej Olejniczak poloniarra saxo tenore, baritono eta sopranoan, Gonzalo Tejada baxuan eta Juan Manuel Urriza baterian, taldearen adina jaitisiz. Sortutako giroarekin lagun talde baten entseguan geundela zirudien une batzuetan, eta horrek bestelako ñabardurak utzi dizkigu, une ez hain borobilak barne, noski.

Baina dena ondo lotuta duten talde eta kontzertu perfektu eta aspergarrietatik urrun, hori da jazzak eskaintzeko duena: arriskatzea eta errepikatuko ez diren uneak oparitzea. *Orain* kanta zo-

ANGEL UNZU


NOIZ: martxoak 19

NON: Lezoko Gezala Auditorium

ragarriaz gain diskoko beste pieza eder batzuk ekarri zituzten: *Lisboa*, *Carla y Steve*, *Geroa* trilogia eta *11x8*. Akaso ezberdinegiak euren artean koherentzia ona mantentzeko. Baina edozein kasutan imajinaziorako bide elektriko proposa eskaintzen dutenak.

Gure herrian kultura “kontsumitze-ko eta oparitzeko” (sic) obsesio hori ez balego, sona askoz ere handiagoa izango luke *Orain* diskoak, plataforma digitaletan ez dakit noiz, baina era fisikoan jada eskuragarri dagoena. Urteko euskal diskoetako bat zalantzarik gabe (apirila da eta ez dakit zenbatekin esan dudana jada hau), eta garaiko musikari garrantzitsuenetako bat ere bai. *Show* eta *business*-ik gabe, duintasuna apaltasunez defendatzen duena. ●

Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:



- 1.** Izeko. / Uzkur, zapaldu. **2.** Mentura, patu. / Erraz, oztoporik gabe erabil daitekeena.
3. Argazkiko musika talde gipuzkoarra. **4.** Etxezale. **5.** Duela 24 ordu. / Ezin itzul daitekeena.
6. Eguzkia. / Itsasora irten. **7.** Donapaleuko auzoa (Nafarroa Beherea). / Astiro, geldiro.
8. Atoian eraman. / Sare zaintzaile.

GOITIK BEHERA:

- 1.** Hoteleri dagokionez, zerbitzuen maila adieraztearren erabilitako ikurra. / Euskararen Gaitasun Agiria. **2.** Ordaintzeko betebeharrak. / Berehala (alderantziz). **3.** Erretreta. **4.** Nafarroako herria. **5.** To, hi. / Alde! **6.** Ezen. / Beldur bizi. **7.** Irakiteko ekintza. **8.** Gizakien aurrageiaren aho azpiko zati. **9.** Osmioaren sinbolo kimikoa. / Nafarroako herria. **10.** Musika nota (alderantziz). / Uso ar. **11.** Lili. **12.** Egoki, erara. **13.** Abarka-moduko oinetakoa. **14.** Sarrera oztapatu. **15.** Neukan.

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA
BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT
AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN
HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA
BESTELAKO HURRENKERAN.

Salneurri, kostu

Trebea

Erromesaldia

Ekaina (Bizkaian)

Olibondoaren fruitua

Bola-joko kopieza

Iskanbila, zalaparta

Azeria

Elurrezko etxea

Karratu

Apala, xumea

Sandia, berendia

Taxu, molde

[illegible]

Sudoku

ERRAZA

	2	7		8	5			
			7			2	8	
			6		4		1	
9				6		3		7
2	8		4		3		6	9
3		6		5				4
	4		9		6			
	3	2			7			
			5	3		4	7	

ZAILA

				3				
7			1		5		3	4
5		9	8	4				
		6				2		
2	1						6	8
		4				3		
				5		7		2
8	9		2		3			6
				1				

EBAZPENAK

ATSOTZITZA
ARRAZOIAREKIN EDO
GABE, ETXEKOE ALDE.

3	9	4	2	1	9	3	7	6	8	5
6	7	6	8	1	2	5	9	3	4	7
1	4	3	6	5	8	7	9	2	5	3
2	8	9	5	2	7	3	4	1	6	8
7	6	7	2	4	1	9	8	5	3	9

ZAILA

8	6	9	1	5	3	2	4	7	8
1	5	3	2	4	7	8	6	9	1
2	4	7	8	6	9	1	5	3	2
3	7	6	1	5	9	8	2	4	7
4	9	1	6	9	3	1	5	7	2
5	2	8	5	4	7	3	1	6	9
6	4	6	3	7	9	1	2	8	5
7	1	2	7	3	8	5	9	4	6
8	5	4	6	3	7	9	1	2	8
9	1	4	2	6	8	3	5	7	2

ERRAZA

ANAGRAMAK

ESKER-EKUNU: 1. ZERBA, IKOL, 2. ZORR, ROSO, 3. ARROTAK, 4. ETXEKOI, 5. ATZO, ITZULEZIN, 6. EKIA, ITTSOSATU, 7. GARRUZE, BARATXE, 8. ATOITU, SAREZAIN.

GOITIK BEHERA: 1. IZAR, EGA, 2. ZOR, AKAT, 3. ERRETRERO, 4. BIOTZARI, 5. TXO, UT, 6. EZE, IZU, 7. AKATIE, 8. KOKOT5, 9. OS, IZABA, 10. LOS, USA, 11. LORE, 12. ERAZ, 13. ZATA, 14. ITXI, 15. NUEN.

Paula Bonet

MARGOLARIA ETA IDAZLEA



MUNDUA FEMENINOAN

“Niretzat arte guztiak toki beretik sortzen dira, ez dut bata bertzea gabe ulertzen, eta helbururik badute, hori ere bera da: idazteak, adibidez, pinturak zein akuafortean grabatzeak ematen didan berdina eskaintzen dit niri. Mundua femeninoan izendatzea da nire lanaren helburu garrantzitsuenetako bat. Negoziaezina iruditzen zait”.

“Amatasuna helburu negoziaezina ez dela jakitea ezinbertzekoa da”

Valentziako Unibertsitate Politeknikoan Arte Ederretako ikasketak egin ondoren Santiagon (Txile), New Yorken (AEB) eta Urbinon (Italia) jarraitu zituen goi mailako ikasketak Paula Bonetek (Vila-real, Valentzia, 1980). Martxoan argitaratu zuen bere azken lana: *La anguila* (Aingira).

SAIOA BALEZTEN A JORDI BORRÀS

Noiz eta nola erabaki zenuen arteaz bizitzea?

Erabaki aurretik zalantza anitz eragin zidan gogoeta izan arren, nola bait sentitzen dut argi nuela hasieratik. Ez zegoen bertze aukerarik...

Arte guztiak toki beretik jaiotzen direla diozu, helburu bera asetzeko. Zer bilatzen duzu zuk artean?

Nire burua ulertzea, zalantzarik gabe.

Zalantzak, zergatik?

Etxean artea ez zutelako ogibide-tzat hartzen, bateraezina zen “bizitza seriozki irabaztearekin”. Ikasle fina nintzen eta amak “probetxuzko” ikasketak egitea nahi zuen, badakizu, Medikuntza, Arkitektura edo Zuzenbidea...

Txikia zinenean zein toki zuen arteak zure bizitzan?

Funtsezkoa zen, erranen nuke toki garrantzitsua hartzen zutela, kasik osoa. Irakurketa eta marrazkiak eguneroko ariketak ziren. Hori bai, asteburuetan zuku gehiago ateratzen nien. Gogoratzen dut irakurke-

ta baliatzen nuela interesik pizten ez zidaten tokietan nengoenean, eta pinturak eta marrazkiek aseta sentiarazten ninduten.

Duela hiru urte argitaratu zenuen *Roedoras. Cuerpo de embarazada sin embrión* (Karraskariak. Haurdunaren gorputza enbrioirik gabe). Zure bizipen pertsonalaren bitartez tabuak hautsi eta abortu espontaneoaz solastatzen den liburua.

Hasteko, zalantzan jarri nahi nituen amatasuna eta gorputzarekin dugun harremana; gurekin zerikusirik ez duen eta toki zehatz eta hagitx mugatu batera bultzatzen gaituen borroka baten landa den gorputza. Bertzalde, egile gisa, existitzeko irudien beharrik ez zuen testu bat publikatzera ausartu nahi nuen.

Lan hori zure antzeko esperientziak bakardadean pairatu dituzten emakume guztientzat sortu zenuela diozu. Zenbateraino da garrantzitsua amatasunaren errealitatea ikusaraztea?



"Arte oro posizionatzen da. Baita bere iritzia ematen ez duena ere, tokirik koldarrenetik".

Emakume izanik, amatasuna helburu negoziatzeko ez dela jakitea ezinbertzekoa da. Hori argi izatea funtsezkoa da.

Amatasuna gizartearen inposizioa dela uste duzu? Zergatik?

Bai, hala uste dut. Diamela Eltit txiletarrak hobeezink azaltzen du hori. Berak *Contra los hijos* (Seme-alaben kontra) liburuan dio txikiak garenez geroztik entzuten dugun galdera tranpak mugimendu gutxirako tartea uzten digula: "Zenbat seme-alaba izan nahi dituzu?". Izan ere, galdera horren bitartez gure garuntxoak seme-alabarik ez izateko aukera baztertzen du zuzenean. Gerora, koskortzen goaz eta ikusten dugu nola gizarteak errezelo eta pena aurpegiarekin begiratzen dituen ama ez diren emakumeak, akatsak dituzten emakumeak izango balira bezala.

Abortua hain ahantzita dago, bertze galerak ez bezala, ez dagoela hitzik galdutako umearen ama deskribatzeko.

Oker ez banago, Rebecca Solnitek dio patriarkatuak ez duela baldartasunez jokatzeko, baizik eta asmo txarrez. Hitz hori ez egotearen atzean asmo argiki perbertsoa dago.

Abortuaz harago bortxaketez ere argi eta garbi mintzatu zara zure lanetan. Pasa den urrian publiko egin zenuen urtebetez pairatutako erasoak. Zer moduz zaude?

Gertakariak ezin naiz publikoki mintzatu auzia irekita eta epaiketa egiteke dagoelako oraindik. Baina erran dezaket arinduta nagoela. Carla Vall abokatuari eskerrak eman nahi dizkiot publikoki hori posible egin duelako. Eta, era berean, erran dezaket zeinen garrantzitsua den genero ikuspegia kontuan hartzen duen defentsa izatea, hori gabe auzi hau lehen unetik galdutako auzia izango zelako.

Gauza intimoez mintzatzeak zigortzen du. Zenbateraino da garrantzitsua artistek, kirolarietako eta bertzelako pertsonaia publikoek gai hauen inguruan iritzia ematea?

Arte oro posizionatzen da. Are gehiago, baita bere iritzia ematen ez duena ere, tokirik koldarrenetik.

Martxoan ikusi du argia *La anguila* nobelak. Zer aurkituko dugu bertan?

Gizon bati idatzitako amodio gutun bat.

Eta emakume baten gorputz kolpatua eta bortxatua, baina estimatua ere bai.

***La anguila* presente egonen da, baita ere, Valentziako Unibertsitateko Nau aretoan. Zertan datza?**


Pintura erakusketa bat da, nobelaren gai bera jorratzen duena plastika abstraktuenetik. Ilun sakonenetik, malformazio mingarrietatik, aretoaren paretan desagertzen den zurirainoko 184 piezek osatzen dute.

Noiz eta nola sortu zen proiektua?

Bi urte eta erdi aritu naiz lanean. Baina *La sed* (Egarria) eta *Roedores. Cuerpo de embarazada sin embrión* lanetan dagoneko taupaka hasita zegoen. Azken hori mahai gainean jotako kolpea izan bazen, *La anguila* kolpearen ondorengo gogoe da.

Bertze proiekturik baduzu esku artean?

2018tik 2020ra bitarte egin nituen bidai koadernoaren edizio lanean ari naiz, bidaiatzea etxeratze aginduen aurretik ondoko supermerkatu joatea bezain erreza zenekoak. Bertzalde, nire bigarren nobela izanen dena egituratzen hasi naiz. ●



Ikastolen, Bertsozale Elkartearen eta Julian Iantziren akzioen gehiengoa ere erosi du Más Móvil-ek



Arantxa Tapia bulegoan, atsedean une batean.

Más Móvil konpainiak iragarri du Ikastolen, Bertsozale Elkartearen eta Julian Iantziren akzioen gehiengoa erosi duela, enpresaren erroak Euskal Herrian are gehiago sendotzeko. Arantxa Tapia sailburuak begi onez ikusi du operazioa, "Euskadiko izena, izana eta sosa sustengatzen dituzten hiru zutabe nagusiak Euskadin geratuko direlako, saltzen ari garen gauza guztiekin gertatzen ari den bezala, Euskaditik Euskadira Euskadirentzako". Ildo

berean mintzatu da Koldo Tellituvic ere, Ikastolen Elkarteko lehendakaria, Crvena Zvezda saskibaloit taldearen estadiotik eman duen prentsaurrekoan: "Más Móvil-ek ziurtatu digu konpetentzietan oinarritutako euskal curriculumaren alde egingo duela, eta lanpostuak mantenduko dituela, LABeko liberatuena barne. Oso pozik gaude". Erabakiaren inguruko monografiko-dokumentala prest du jada ETBk: "Más Iantzi", Iantziren amonak aurkeztuta. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Gora borroka feminista!



Irudia: @aranburun

Norbaitek esan behar zuen



Irudia: @urbixxx / Urnietan

Merina Grisen lehen diskoa sareratu du jada Gabi de la Mazak



Chill Mafiak disko berria plazaratu eta hiru ordu laurdenera Gabi de la Mazak karaoke-bideoak eginak zituen jada. Hala ere, jabetu da badagoela denborak murriztea, eta erabaki du musika taldeek euren lan berriak sortu aurretik jarriko dituela sarean haien kanta, alegia, de la Mazak egingo dizkiela abestiak euskal talde guztiei eta punto, zain egon behar izan gabe, zer egin ez dakiela. "Chill Mafia, Jota Mar-

tina, Kai Nakai, Merina Gris, Zetak, Su Ta Gar... bogan diren talde gazteekin harremanetan jarri naiz eta baietz esan didate, lasai egiteko haien disko berriak, nire bideoek gehiago petatzen dutelako haien bideoklipek baino", esan digu De la Mazak. Abestiak berak eginda, gazte horiek zer dioten ulertuko duela dio, "kakaiñen ba-leude bezala kantatzeko manera hoiekin, ez dut ezer entenditzen". ●

2. argitaraldia

Bizitzaren ederra loratu dadila

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, ureztaketa, ongari naturalak nola egin eta nola birlandatu.



25€

Orri kop.: 248

BIZI BARATZEA

ARGIA

EROSTEKO: argia.eus/azoka 943 37 15 45





LAINOA / NIEBLA

ERAKUSKETA

KEAREN ETA LANBROAREN ARTEAN



EBROKO GUDUA. BONBARDAKETA / BATALLA DEL EBRO. BOMBARDEO

2021-02-18 // 2021-05-23

SAN TELMO MUSEOA

Zuloaga Plaza, 1 | 20003 Donostia / San Sebastián | www.santelmomuseoa.eus | @santelmomuseoa

GERNIKA



ANTOLATZAILEA:



ERAKUNDE BABESLEAK:



MUSEOAREN PATRONO PRIBATUAK:

